

# ttiipi-ttapa

258. zenbakia • 1999ko uztailak 15 • XIX. urtea

## Belateko tunelak abuztuan itxiko dira seguruenik

Almandoz eta Belateko tunelak ireki zirenetik hemeretzi hilabete pasatu direnean, hirugarren aldiz itxiko dituzte hurrengo asteetan tunelen barnetik obrak egiteko.

Hasiera batean uztailako bigarren hamabortzaldirako aurrikusia zegoena, iduri du azkenean aste batzuk beranduago izanen dela. Izan ere, Madrilgo enpresa bati eskatua zaio zer den zehazki egin behar dena argitzea, eta informe hori egiten «uste baino denbora gehiago ari dira pasatzen». Horrelaxe adierazi digu

Javier Garrazak, Mugairiko Bidezainen Zentruko arduradunak. Horrela, bada, udako hilabeteak trafiko aldetik lasaigoak direla-eta, sasoi hau aprobeztatuko dute obra egiteko.

Afera hauen gainean dakiten teknikoei diotenez, egoera kezkatzekoa da, batez ere, «egunero tunela erabiltzen duten pertsonen segurtasuna tartean dagoelako». Hauen ustez, «Gobernuko agintariek garrantia osoa eskatu beharko zieten enpresei obra egiten ari diren momentuan, inaugurazio ofizialen epeak hainbertze begiratu beharrean». Gogoratu behar da 5.000 ibilgailu baino gehiago pasatzen dela egunero tuneletatik.

*Ireki zirenetik bi urte bete ez direnean, hirugarren aldiz itxiko dituzte paretak indartzeko*

### BARNEKO PARETAK GAIZKI EGINAK

«Behar den bezala indartuak ez daudelako erortzen dira zatika Belateko Tunelak»  
Antonio Rodriguez Fdez.  
Meategietako Injinerua




### Helburua bete dute!

Gasherbrum II espedizioa 3 kidek 8.035 metroko tontorra zantpatzea lortu zuten joan den ortziralgoizean. Uztailaren 21ean eginen zaie ongiatorria Beran.

**7 TTAPI TXARTELA:** Orain txartela izateak abantaila gehiago ditu. Erosi zeurea eta erabili.





# H. LOPEZ ITURGINTZA

- KALEFAKZIOA
- GAS INSTALAZIOAK
- ITURGINTZA INDUSTRIALA
- UREZTATZE SISTEMAK

**Bainuontziak,  
Manparak,  
Hidromasaia,  
Hidrosonic**

*Urte bateko finantziazioa  
interesik gabe*

*5 urteko finantziazioa*

**Eskatu aurrekontua konpromezurik gabe**

Tel. 948 45 21 26 / 617 34 99 44 • 31793 Narbarte

OFERTAK • OFERTAK • OFERTAK • OFERTAK • OFERTAK



Bidasoa, 45-60  
BERA  
Tfnoa: 948 630 537

**OFERTAK**



**OFERTAK**

**LIKIDAZIOA**

*Erakustoki  
aldaketagatik*

**DENA SALGAI**

**LASTER ALKAIAGAKO INDUSTRIALDE BERRIAN**

OFERTAK • OFERTAK • OFERTAK • OFERTAK • OFERTAK • OFERTAK • OFERTAK • OFERTAK • OFERTAK • OFERTAK


# BETIKO

## Zuraren imitazioan lehenbiziko saria

Uztailaren 4 eta 5ean burutzen Sevillan, Zuraren imitazioan PVC soluzio onenei emandako sarien banaketa. Arizkongo Betiko enpresak hiru lanurkeztu zituen eta lehendabiziko saria eskuratu zuen. Richard Alzuguren, Betiko lantegiaren arduradunaren erranetan, «guretzat sorpresa handia izan da, arras zaila baitzen. Kontuan hartu behar da, Espainia eta Por-

tugal osoko jendeak parte hartu zuela». Betiko, ASOVEN (PVCko Leihoen Elkarte) elkarteko 59 kideetako bat da.

Sari banaketaren ondotik, PVC eta ingurugiroari buruzko mahaingurua izan zen. Bertzeak bertze, Antonio Escobar Deceunik Ibérica enpresako zuzendaria eta Jose Luis Valencia, ASOVEN elkarteko zuzendaria aritu ziren solasean.



Arizkongo Ordoki industrialdean dago Betiko PVC zurgindegia.

Foto MENA

### Energiaren %30 aurrezten da PVCarekin

PVCaren osaketa honela banatzen da: %57 agatz arrunta (kasik bukuezina den errekurtoa) eta %43 petroleoaren deribatuak. PVCak ez du mantenimendurik behar (ez pintura, ezta barnizik ere). Energiaren %30 aurrezten da (energiaren %30 guttiago erabiltzen da eta at-

mosferara %30 sustantzia guttiago igortzen da). Denboraren poderioz, PVC-a ez da useltzen eta ez da zahartzen. PVC-a errex birziklatzen den materiala da, gehienetan xehetuz. Birziklatutakoa PVCa ur eta elektrizidade hodiak edo arropa-haria egiteko erabiltzen da, bertzeak bertze.

Eraikuntza arloaz gain, bertze hainbat lekutan erabiltzen da PVC-a: Medikuntza arloan, xiringak egiteko edo odolplasma, arropagintzan, automozio arloan, etabar... □



• 1997an ideki zen Arizkongo Ordoki industrialdean dagoen BETIKO lantegia.

• Sei langile ditu eta bezero gehienak ingurukoak dira, minoristak eta partikularrak batez ere.

• Leiho eta atea egiten dituzte lantegian, baina obra osoa egiten dute etxean: leiho zaharrak kendu eta berriak jarri.

Elgorriagako Karmentxu Olazarrek utzitako argazki honetan ageri da lehengo bainuetxearen itxura nolakoa zen.



## ELGORRIAGAKO BAINUETXEA

# Ur gaziaren indarra turismoa bultzatzeko

**Ur gaziko bainuak hartzera Espainia guzitik etortzen zen jendea Elgorriagako bainuetxera, batez ere 1920 eta 30. hamarkadetan. Aski famatua zen garai hartan eta Alfonso XII erregearen seme-alabak ere Elgorriagan izan omen ziren. Hazteko adinean zeuden gazteentzat arrunt aproposak omen ziren ur hauek. Izan ere, garai hartako publizidade orri batzuetan agertzen denez, mundu osoko urik gazienak ziren, ur litro bakoitzeko 310 gatz gramorekin-. Urteen poderioz, modak aldatzen direlako edo momentuko egoera ekonomikoaren ondorioz, bainuetxearen gainbehera hasi zen, 1940. hamarkada akabailan itxi zen arte. Orain, 50 urte beranduago, berriz ere bainuetxea zabaltzeko asmoa dute Elgorriagan.**

TESTUA : AITOR AROZENA

**b**ainuetxea egin baino aunitzez lehenagokoa da Elgorriagako gatzaren historia. 1846an hasi ziren gatza ateratzen, ura eguzkitan paratuta. Gero, Alejandro San Martin eta Antonio Simonena doktoreek sendagai bezala urak zuen balioa ikusi eta sendatzeko bainuak manatzen hasi ziren. Martxoaren 12ko Erret Agindu baten bidez, balio publikoko urak izendatu zituzten. Bainuetxea ekainetik irailera zabaltzen zen eta hainbat bisitari izan zituen, batez ere 1920 eta 30. hamarkadetan. Haur eta nerabeak hazteko tratamenduetan –Alfonso XII. erregearen seme-alabak bertan izan ziren–, ahulezia zutenak indartzeko eta emakumeen gai xotasu-netarako –antzutasuna, bertzeak bertze– hagitz baliagarriak ziren Elgorriagako urak. Gartzineako

Martin Jose Telletxeak gogoratzten duenez, «nire aita zena dexente ongi sendatu zen. Doneztebeko bertze bat ere bazen, Jose San Martin... biek artrosia zuten eta ongi gelditu ziren. Nire aita, oinez ezin eta astoan etortzen zen Doneztebetik bainuetxera. Leitzatik ere etorri zen gizon haundi bat, bi muletakin; muletak utzi eta joan zen, arrontsendatua. Eskuan edo gaitzen bat izanez gero arront ona zen».

### Munduan mineral kopururik haundiena duen iturria

Bainuetxearen garai bateko publizidadean ageri zenez, «munduan mineral kopuru gehien duen iturria da Elgorriagakoa». Litroko 312 gramo gatz zituen eta 304 gramo kloruro. Konparazio batera, Medina del Campokourak 233 gramo gatz zituen litroko eta La Tojakoak 29. Doneztebeko tren estazioetik bainuetxera joan-etorria egiteko autoa izaten zen,

## Tarifas de Hotel

Penalón completa: entre 11 y 20 ptas. diarias, por persona.

Niños menores de 7 años: mitad de penalón en su caso.

Sereñalumbre: 5 ptas. diarias, penalón completa.

**Advertencias.** - Se enfiende esta tarifa ocupando cada dos personas habitación de dos camas, en caso contrario, distinto precio.

La tarifa de los niños es ocupando cama-cama; en otro caso, la mitad de penalón se referirá solo a la comida.

## Tarifas del Baleario

Por entrada de baño (hasta 15) según prescripción, y en su caso espejal,.....	75.00 ptas.
Por baño medicinal según en su caso espejal.....	5.00 "
Por serie de baños hasta 15 en cuarto de L. <sup>a</sup> .....	60.00 "
Por baño medicinal según en L. <sup>a</sup> .....	5.00 "
Por baño común no medicinal.....	2.00 "
Por derecho de uso de bañeros de sol por la temporada.....	10.00 "
Por serie de irrigaciones hasta 10 l. <sup>a</sup> .....	20.00 "
Por cada irrigación según.....	2.00 "

- 11 -

## Bainuetxe eta hoteleko tarifak ageri ziren 1920. hamarkadako publizidade liburuxkan.

liburuxka horretan agertzen denez. Pertsona bakoitzeko pezeta 1 ordaintzen zen eta 30 kilora ailegaten ez zen fardel bakoitzeko bertze horrenbertze. Fardela haundiagoa baldin bazen, 2 pezeta.

Bainuetxea 1940. hamarkadaren akabailan itxi zen, momentuko egoera ekonomiko kaxkarrak garai hartan luxuzkoa zen iharduera ekonomikoa itto zuenean.

## Egunero 240 pertsona hartzen ahal dituen bainuetxea

Aitzinetik historia dexente duela kontuan hartuz, Elgorriagako bainuetxea biziberritzeko asmoa ez da hutsetik sortutako zerbait. 1987an hasi ziren egitasmoa bultzatzen, Udalak proiektuaren bideragarritasuna aztertzeko Nafarroako Gobernuaren laguntza tekniko eskatu zuenean. Orduan, 1996. urterako martxan egon zitekeela iragartzen zen, baina, ageri denez, burokrazia aferak poliki doaz. Jose Migel Galarregi, Elgorriagako alkatearen erranetan, «*hau bultzada polita izanen da eskualdeko ekonomiarentzat*». Bainuetxeak berez sortuko litzuzkeen lanpostuez gain, zeharkako lanpostuak ere kontuan hartu behar dira.

Elgorriagako Udalak, Nafarroako Gobernuak eta Espainiako Gobernuko Sustapen Ministeritzak berriki sinatutako elkarlan hitzarmenak bultzada berria eman dio proiektuari. Honen arabera, bainuetxeak egunero 240 pertsona tratatzeko ahalmena izanen du. Horietatik batzuk 160 lagunendako lekua -80 logela bikoitz- izanen duen lau iza-

rreko hotelean aterpea hartu ahal izanen dute. Jende horretaz arduratzeko, denboraldiaren arabera, guttienez 30 langile eta gehienez 70 behar dira, Jose M<sup>a</sup> Pastor bainuetxeako zuzendari medikua izanen denaren uestez. Garai batean egiten zen publizitatea, gainera, ez omen zen gehiegizkoa: «*Sekulan ezagutu ditudan ur gazienak dira Elgorriagakoak: litroko 310 gramo gatz dute, Itsaso Bareak baino gehiago. Espainian ur gazienak dituen bainuetxeak litroko 210 gramo bertzerik ez ditu*» dio Pastorrrek. Hori bai, ura hotz xamar ateratzen da -13 edo 15 gradutan- eta berotu egin behar litzateke. Ur uherrak direnez, bakar-bakarrik bainuak hartzeko erabiliko dira eta ez botiletan saltzeko.■

# Mila milioitik goitiko aurrekontua duen proiektu haundia

Ekainaren 10ean Elgorriagako Bainuetxea martxan jartzeko hitzarmena sinatu zen. Sinadura ekitaldian, Jose Migel Galarregi Elgorriagako alkatea eta Ramon Bultó, Nafarroako Gobernuko Industria, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamenduko kontseilaria izan ziren.

Jose Migel Galarregi, Elgorriagako alkateak, gogorazazi zuenez, proiektuak 870 milioi pezetako aurrekontua du. Hortik erdia Espainiako Gobernuko Sustapen Ministeritzak ordainduko du, 435 milioi gehienez ere; %30a Nafarroako Gobernuak, Industria, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamenduen bitartez eta gainera %20a Elgorriagako Herrriko Etxeak. Azken zati hau, duela hiru urte sortutako *Elgorriagako Bainuetxea*, SL elkarte pribatuak jarriko du, bainuetxearen gestioaren truke. Proiektuaren %20a ordaintzeaz gain, lur eremua erostea eta bainue-

txearen ekipamendua elkarre honen gain joanen da. Jabea, beti ere, Elgorriagako Udala izanen da hurrengo 30 urteetan.

Eraikitze lanen 870 milioiez gain, proiektu idaztea 50 bat milioi pezeta gostako da, bertze horrenbertze lurra erostea eta 170 milioi inguru erabiliko da ekipamendua eta dekorazio lanetan. Bainuetxea eraiki eta berri ere lanean jartzeak, beraz, mila milioi pezetatik dexente goitiko aurrekontua izanen du osotara.

Hiru erakundearen arteko elkarlan hitzarmena sinatu ondotik, bainuetxea eraikitzeko administrazio tramiteak hasiko dira orain. Proiektuaren erredakzioa egiteko lehia-keta deitu behar da lehenik. Epeak behar bezala errespetatzen badira, heldu den urteko udaberrian hasi daitezke lanak eta urte terdiko epea izanen da lanak akitzeko. Hitzarmena sinatu duten hiru erakundeek lanen jarraipen batzordea osatuko dute.



Jose Migel Galarregi eta Ramon Bultó, elkarlan hitzarmena sinatu zuten uean.

LEGE GORDAILUA: NA-1324/85

FRANKEO ITUNDUA: 34/79

TIRADA: 7.100 ALE

## Helbidea:

T TIPI-TTAPA ALDIZKARIA

Herriko Etxeko Plaza, 1

E-31780 BERA (Nafarroa)

Tfnoa: (+34) 948 63 11 88

Faxa: (+34) 948 63 12 91

## Internet:

<http://www.jalgi.com/topagunea/ttapi-ttapa>

## e-mail:

ttipi-ttapa@topagunea.jalgi.com

**Jabea:** TTIPI-TTAPA FUNDAZIOA.

**Presidente:** Pello Apezetxea.

**Kudeatzailea:** Joxemanuel Irigoien.

**Zuzendaria:** Aitor Arozena.

**Publizitatea:** Kulturkari, S.L.

**Administrazioa:** Amaia Goia.

**Erredakzioa:** Aitor Arozena,

Asier Gogortza.

**Berriemaileak:** Joseba Azpiroz, Esteban Arozena,

Juana Mari Saizar, Iban Isasi,

Patxi Iriarte, Patxi Otxandorena,

Jaione Otxandorena, Alba Fernandez,

Lorena Galarregi, Pablo Mendiburu,

Franck Dolosor, Margari Etxenike,

Koro Irazoki, Ana Mari Etxeberri,

Martine Goietxe, Frederick Berruet,

Elixabet Iturria, Garbiñe Maiz,

Oskar Txoperena, Pello Apezetxea,

Aitor Arozena, Asier Gogortza.

**Kolaboratzaileak:** EHNE Nafarroa,

Mikel Bezunartea, Belarra...

**Inprimategia:** Gertu.

**Erakunde Laguntzaileak:** Bera, Leitza,

Goizueta, Arano, Areso, Baztan,

Urdazubi eta Sarako udalak,

Bortziri- etako Euskara Mankomunitatea,

Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

## Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria ... 2.000 Pta.

Ipar Euskal Herria ... 140 Libera

Europa ... 3.500 Pta.

Amerika ... 15.000 Pta.



Aldizkari honek Nafarroako Gobernaren laguntza jaso du

## GAURKOTASUNEKO GAIA

### Baztango mutildantzak: mutilentzat bakarrik?

#### Gauza tradizionala da, aspaldikoa, eta den bezala mantendu nahi dugu



Irontzu IZETA  
Dantzaria. Elizondo

Gu, Baztango dantza taldetik, saiatzen gara gauza dagoen bezala mantentzen. Nolabait mutildantzak gizonen dantzak izandu dira betidanik, eta guk horrela izaten segitzea nahi dugu. Gauza tradizionala da, aspaldikoa, eta nahi dugu mantendu den bezala. Gure eskuan dagoen bitartean horrela izanen da, eta gehiago dantzatu nahi duten gizonak dauden bitartean. Momentu batean mutilek galtzen badute interesa dantza honengatik, orduan ikusi behar, baina printzipioz guk tradizio hori errespetatzen dugu. Gainera, dantza maite duenak baditu bertze hainbertze dantzatzeko. Normalki bazterrak nahasten dituztenak preziskiki bertze gauzak dantzatzeko ez dituztenak izaten dira.

Egia erran, duela bi urte Baztandarren gertatutako azniez nintzen ohartu ere egin. Beti bada emakumeren batsartzen dena, bainagauza bitxia da, normalean ez direlako baztandarrak izaten. Herriko bestetan, aldiz, Santio egunean, ez zaio inori gogoratzen mutildantzak dantzatzera ateratzeko.

Neri, egia erran, denbora galtze batiduritzen zait horri buruz hitz egitea, eta nahasi behar ez dena nahastea.

#### Ez zait buruan sartzen bazkalondoko giroan dantzatzea debekatzea



Elurte IRIARTE  
Dantzaria. Arizkun

Duela bi urteko Baztandarren Biltzarreko bazkarian gertatu zenarekin harriria gelditu nintzen. Urtero bezala, bazkalondoko giroan jotzen den guzia dantzatzeko jendeak. Gogoratzen dut dantzatzeko ari nintzela eta bapatean txistulariak bota zuen neska ateri behar ginela bertzenaz ez zutela segituko, eta nik, noski, ez nion kasorik egin, zeren lelokeri bat iduritu zitzaizten. Nik uste dut neska andana bat ariko ginela dantzan, bazkalondoko giroan jotzen den guzia, pentsatu gabe mutildantzaren, edo gaita zen edo larraindantza...

Nik ez dut eztabaidatuko plazan Santiotan dantzatu behar dugun edo ez. Dena den, ez dut gaizki ikusten mutikoz jauntzia ateratzea. Hala ere, ni ez naiz aterako hor dantzatzera, hor bai nahi baduzu tradizioa dagoelako, etab... baina ez zait buruan sartzen bazkalondoko giro horretan debekatzea. Ni arras harriria gelditu nintzen, gauzak bere onetik atera zirela uste dut. Ze inporta du neska naizen, kanpokoa naizen edo ile motza dudana...

Joan den urtean uste dut ez zela mutildantzik dantzatu baztandarreneko bazkalondokoan. Aurtenera egiten ez badira arazoa estaltzea dela iduritzen zait aitzinera egin beharrean.

#### Santiotan ez dute inoiz neskek dantzatu, hori ofizial gisa ikusten delako



Asier VIEIA  
Txistularia. Amour

Duela bi urte Baztandarren Biltzarreko bazkarian hartan ni ez nintzen txistua jotzen aritu, bainan bai bazkarian. Neri gaizki iduritzen zait neskek mutildantzak dantzatzeko, eta ez dut uste matxismo eta feminismoen arteko arazo bat denik, tradizio arazo bat besterik ez. Betidanik mutilek dantzatu dute, tradizioz horrela izan da, eta nik bederen horrela mantenduko nuke.

Santiotan ez da behinere neskarik dantzara, hori dantza ofizial gisa ikusten delako, bainan Baztandarreneko bazkarian batzuk ez dute berdin ikusten. Hori norberak ematen dion garrantziaren arabera da. Nik mutildantza horiek ere ofizial gisa ikusten ditut.

Txistularien artean denek dugu iritzi berdintsua gai honi buruz. Dena den, ez diogu garrantzi handirik ematen. Neri pertsonalki ez zait behinere gertatu horrelako egoera bat. Nerekin txistua jotzen duen bati bai, ordea, eta berak dantza gelditzea erabaki zuen duela bi urte. Badakit Orixe zena ere horrelako egoeratan gelditu egiten zela. Hori aditu dut bederen.

Aurten Elizondoko bestetan ez dut uste istilurik izanen denik, eta Baztandarren Biltzarran ez dakit egiten diren ere...



ttipi-ttapa fundazioak Europako Batzordearen dirulaguntza jaso du

## ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORAIA

### LESAKA:

• Asteleheneetik asteazkeneira 9-13tara eta 16-20tara

• Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara

Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 948 637050

### BURLATA:

ARTEKARI, S.L., © 948133328 • 133346. Faxa: 948133713

Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- ☞ Langile Autonomoak
- ☞ Nekazariak eta mendi-langileak
- ☞ Nominak eta Aseguro Sozialak
- ☞ Lan-kontratutarako laguntzak
- ☞ Enpresa berri ezberdinen sortzea
- ☞ Diru-laguntza ezberdinak
- ☞ Kontabilitateak
- ☞ IVA eta IRPF
- ☞ Errenta aitortpenak
- ☞ Elbarritasun eta jubilazio tramiteak
- ☞ Bideragarritasun planak

**ARGAZKIAK**



DONEZTEBE • ELIZONDO  
Tfnoak.: 948 58 01 55  
948 45 08 25

► %10 merkeago argazkiak errebelatzea

**LENTZERIA**

*Deñe*

Behoko Plaza • LESAKA  
Tfnoa.: 948 62 75 14

► %10 merkeago lentzeriako artikuluetan

**PENTSUAK**



MENDAU PENTSUAK

Aparan • DONEZTEBE  
Tfnoa.: 948 45 18 45

► %5 merkeago zakur, katu... pentsuak

**ZAPATAK**

**ALDI-ROZAS**

Knattonberri • BERA  
Tfnoa.: 948 63 06 80

► %10 merkeago oinetakoetan



**TTIPI TXARTELA**ekin beti irabazten da

Zenbat eta gehiago erabili, orduan eta gehiago irabaziko duzu.

Deskontuak, zozketak, opariak...

**ESKATU ZUREA**

**948 63 11 88**

**Ameztiako saria**ren irabazlea:

**Rafaela ZAMORANO (Igantzi)**



EGUNEKO MENUA ETA KARTA

Berako **ZALAIN jatetxeak** bi lagunendako bazkaria edo afaria irabazteko aukera ematen du TTIPI TXARTELA dutenen artean.



**2 lagunendako bazkaria edo afaria**

zozketatuko da TTIPI TXARTELA dutenen artean. Zozketan parte hartzeko, deitu uztaillaren 21a baino lehen 948 63 11 88ra.

**LIBURUAK**

**LEGARRA**

LIBURUAK  
PAPERTEGIA  
FOTOKOPIAK

Albistur, 9-11 • LESAKA  
Tfnoa.: 948 45 03 33

► % 10 merkeago Liburu eta papertegian 1.000 Ptatik goitiko erosketetan

**NAFAR PRESS**

LIBURUAK • PRENTSA  
ESKOLA MATERIALAK

Jaime Urrutia, 43  
ELIZONDO  
Tfnoa.: 948 58 09 02

► % 10 merkeago Liburu eta eskola materialetan

# 743 lagunek parte hartu dute sei urteotan ITGk Juansenean emandako ikastaroetan

**ITGak eskualdeko nekazarien formakuntzari begira hainbat ikastaro antolatu ditu Doneztebeko Oteiza auzoko Juansenea etxean azkeneko sei urteotan. Guzira 743 lagunek eman dute izena, horietatik kasik erdia emakumeak.**

**Angel Gainza, ITGko Nekazal Formakuntzako eta ikastaro hauen arduradunaren erranetan, 'Juansenean, eskualdean sor daitezkeen aktibidade eta proiektu berriak isladatu behar dira'. Nekazari eta abeltzainen topagunea izatea erenahiko luke Gainzak.**



Angel Gainza da Nekazal Formakuntzako ITG ikastaroen arduraduna. Argazkian, Juansenea etxearen atarian ageri da. Argazkia: Karmele

✓ **Noiz sortu zen Juansenea?**

■ Juansenea etxe zahar bat zen eta 1990eko urte akabailan lanean hasi ginen. Lehendabiziko inguruko landa moldatu zen eta geroetxea. 1992an martxan zegoen, baina 1993an hasi ziren Nekazal Formakuntzarako IT-Gren ikastaroak. Lehendik belagiak lantzen ziren.

✓ **Zein helburu dituzue ikastaro hauek antolatzerakoan?**

■ Alde batetik Juansenea erreferentzia-finka bat da, hau da, kanpoan egin diren esperimentoak hemen praktikan jartzeko lur-saila da. Hemenizatenduten arrakastaren arabera, baserrietara hedatuko dira. Bertzalde, eskualde honetako nekazari eta abeltzainen topagunea ere bada, eskualdean sor daitezkeen aktibidade eta proiektu berriak isladatzen diren lekua.

✓ **ITGk ikastaroak paratu eta jendeak izena ematen du edo jendeak berak eskatzen ditu ikastaroak?**

■ Errentak erakusten dutenez, hau abeltzainen zonaldea da, ezaugarri berezi batzuekin. Orduan, guk jendearen beharren arabera prestatu behar ditugu ikastaroak. Ikastaroen bitartez, parte hartzen dutenek beraien esplotazioei balio erantsia ateratzeko modua izan behar dute. Ikastaroak prestatu baino lehen informazioa jasotzen dugu: nekazari eta abeltzainen bidez, agroturismo egiten duten etxe-koandreen bitartez, zonalde ezberdinetan ditugun teknikarien bidez... Gero, ITGk ere, bere iritzian zonaldeko garapenerako egokienak izaten ahal diren ikasketak bultzatzen ditu.

✓ **Gaur egun, baserri edo esplotazioetan dibertsifikazioa nahitaezkoa dela uste duzu. Zergatik?**

■ Alde batetik garbi dago, arraultze guziak saski berean ez jartzeaga-

tik. Baserrian zerriak bakarrik badi-tuzu eta sektorea krisian sartzen bazara, ez duzu zer eginik. Bertze zer-bait jartzen baduzu baserrian, bizi-modua igual ez duzu horretatik aterako, baina diru-sarrera osagarri bat izanen duzu.

✓ **Garrantzi berezia ematen diozue emakumeen partehartzeari ikastaro hauetan?**

■ Nik uste, emakumeak gauza berriak ikasteko irekiagoak eta ausartagoak diren. Hori alde batera utzita, baserrietako martxa eramaten dutenak emakumeak izaten dira aunitan. Horregatik eman diogu garrantzi berezia beraien parte hartzeari. Zenbait ikastarotan guziak emakumeak ziren, bertze batzutan, ordea, bakar batere ez da apuntatu: hori gaia- ren arabera izaten da.



## DONEZTEBEKO JUANSENEAN EMANDAKO IKASTAROAK

Ikastaroa	Ikasle kopurua	Emakume kopurua
<b>1993</b>		
Fruitu tikiak	8	4
Oihan mindegiak	15	5
Mermeladen fabrikazioa	12	9
Natur-gidariak	18	10
Zerramen hazkuntza kanpoan	13	5
Hertzebeteen fabrikazioa	10	8
Azpiko zaldiaren maneia	15	7
<b>GUZIRA</b>	<b>91</b>	<b>48</b>

Ikastaroa	Ikasle kopurua	Emakume kopurua
<b>1994</b>		
Azpiko zaldiaren maneia	13	6
Ardi gasna egitea	11	8
Fruitondoan kimatzea eta txertoa	16	2
Esneki gozogintza	10	10
Natur-gidariak	14	6
Ahateen bazkatzea	16	7
Atzazkalen moldaketa	29	8
Abeltzaintza	32	9
<b>GUZIRA</b>	<b>141</b>	<b>56</b>

Ikastaroa	Ikasle kopurua	Emakume kopurua
<b>1995</b>		
Abeltzaintza	30	10
Hazi-emate artifiziala behietan	10	0
Nekazal kontabilitate sinpletua	15	12
Nafarroako Aretzea	8	2
Barazki Kontserbak	14	14
Frutikultura	22	4
Mermeladen fabrikazioa	15	14
Gasna egitea	19	15
Hertzebeteen fabrikazioa	14	14
Fruitondoan kimatzea	35	0
Artisautza	11	3
<b>GUZIRA</b>	<b>193</b>	<b>88</b>


Ikastaroa	Ikasle kopurua	Emakume kopurua
<b>1996</b>		
Ardi-esnearen kalidadea	21	4
Sagardotarako sagarra	17	7
Soroak eta bazkak	27	0
Gasna egitea	12	4
Baratzea	23	13
Nekazal iharduera turistikoak	12	3
Artisautza	10	9
<b>GUZIRA</b>	<b>122</b>	<b>34</b>

Ikastaroa	Ikasle kopurua	Emakume kopurua
<b>1997</b>		
Nekazal kontabilitate sinpletua	15	12
Hazi-emate artifiziala behietan	11	1
Frutikultura	18	1
Nekazal iharduera turistikoak	16	16
Natur-gidariak	18	10
<b>GUZIRA</b>	<b>78</b>	<b>40</b>

Ikastaroa	Ikasle kopurua	Emakume kopurua
<b>1998</b>		
Abeltzaintza	13	5
Nekazalturismoa I	25	5
Nekazal iharduera turistikoak	15	14
Proiektuen laguntza	30	27
Nekazalturismoa II	12	10
Kontabilitate informatizatua	13	4
Hazi-emate artifiziala behietan	10	1
<b>GUZIRA</b>	<b>118</b>	<b>66</b>



**NEKAZAL  
FORMAKUNTZA**



✓ **Ongi moldatzen dira nekazari eta abeltzainak ikastaroetara joan eta aldi berean, etxeko lanean aritzeko?**

■ Kontua da baserritarrek denetik egin behar duela: behiak jetzi, azpiak atera, haurrak eskolara eman, nekazal sindikatuaren solasaldira joan, ITGaren ikastarora joan... Azkenean ez du denborarik eta ikastaroa egin bai, baina ez dakit zer ordutan

eman nahi duela erraten du. Gure us-tez, ordea, ikastaroetara etortzen dena, egitan nahi duelako eta behar duelako etorri behar du. Horretarako, erne eta ikasteko gogoz egon behar du.

✓ **Eta gero, ikastaroan ikasitakoa badu etxean erabiltzerik?**

■ Bada denetik. Hemen jendeak ez du teoria maite, abudo ikasi nahi

duelako: «Niriesnea jeiztekoa titian sartu eta martxa jartzan erakutsi» erraten dute, baina lehenik gauzak zergatik egiten diren ikasi behar dute. Horregatik, gauzak axaletik ikasi dutenek, ikasitakoaren zerbait ezberdina suertatzen bazaie baserrian, ez dakite hori aplikatzen. Orain, sakoneko teoria ikasiz gero, baserrian aplikazio ezberdinak topatzen dizkiote.

## Atatxi eta amatxien Eguna ospatuko du Arkupeak elkarteak uztailaren 26an

Heldu den astean, bertzalde, Lourdesera joanen dira eta Tourra ikusiko dute

TTIPI-TTAPA

Uztailaren 26an, mundu osoan atatxi-amatxien eguna ospatzen dela eta, Xabierko Gaztelura bidaia antolatu du Arkupeak erretiratuen elkarteak. Eguna, berez, biloben bat dutenei zuzenduta badago ere, aitona edo amona ez denak ere izanen du bidaira joateko modua.

Autobusak herrizherri aterako dira eta eguerdian Meza izanen da Xabierren, eskualdeko apezten batek emana. Atatxi eta amatxiei opari bana emanen zaie. Ondoren Xabier jate-txean bazkalduko dute, honako menu eder honekin: Marisko koktela, etxeko arrain pastela, zainzuriak, fritoak, tigreak eta kalamarrak, piper beteak, etxeko nahaskia, espinaka eta



Otordu ederra eginen dute atatxi-amatxiek Xabierren.

Artxibokoa

ganba hojaldrea, legatza mariskoarekin bete, tarta etxeko izozkiarekin, txanpaina (lau lagunendako botil bat); ura, ardoa, kafea eta kopa normala.

Bazkaldondoa alai-

tzeko eta jan-edariak behar bezala asentatzeko, dantzaldia izanen da Modesto akordeolariarekin. Arratsaldeko 7,30ak aldera abiatuko dira autobusak, berriz ere bueltan etxera.

### Lourdesera joan bidenabarkoan Tourra ikusi

Xabierreko bidaia ez da, ordea, egun hauetarako Arkupeak elkarte-ko erretiratuek prestatua duten ekitaldi ba-

karra. Aitzinetik, uztailaren 20an Lourdesera joanen dira. Hori aprobetxatuz, biharamonean, Pirinio aldera ere hurbilduko dira, Frantziako Tourraren etapa ikusteko. Uztailaren 20an goiz-goizetik abiatuko dira erretiratuak autobusean, meza Lourdesen aditzeko. Bazkal ondotik, erien prozesioa ikusi, Via Crucis egin eta afalduko dute, gero suzien prozesioa ikusteko. Bigarren egun osoa libre izanen dute eta Frantziako Tourreko Pirinioetako kaxko famatuenetan –Tourmalet edo Aspin, bertzeak bertze– egoteko aukera izanen dute.

Arkupeak elkarteak urtero errepikatzen duen bidaia da hau eta erretiratu aunitzek hartzen dute parte. Erljioia eta kirola uztartzeko modu polita, dudik gabe.

FOTOKOPIAK  
txari beltzean  
KOLORETAN  
PLASTIKAZIOAK  
ENKANTERNAZIOAK  
26 Ekaineko 2008

**IRUDI**  
DISEINU GRATIKOA  
INPRENTA  
LANAK  
SERIGRAFIA  
IRKOTULOK  
PUBLIZIATZA

**KULTUR ETXE AURREAN**  
3176 BERA Tel-fax: 948 63 15 21

**ROMANO PINTURAK**  
Barnealdeko dekorazioa, pintura, papera, moketa eta sintasola.  
© 948 63 11 37 / 649 84 01 49 • BERA

**ttipi-ttapa internet**  
<http://www.jldi.com/espagnol/ttapi-ttapa>  
E-mail: ttipi-ttapa@espagnol.jldi.com

**EGUZKI OSTATUA**  
*Era guzietako bokatak, hotzak eta beroak*  
**Kaxulak**  
*Bazkari eta afari bereziak enkarguz*  
**Erretegia**  
Legia, 39 - BERA - ☎ 948 631 012

**E D A R I A K**

**MANUEL TABERNA S.L.**  
Bidasoa K / 82 - 31780 BERA (Nafarroa)  
Tel.- Fax: 948. 63 10 27

**GOZOTEGI-JARONE**  
Altzate, 19-948630786 • BERA

**LABE-ZAR**  
© 948631076 • BERA

# Gasherbrum II espedizioak gailurra egitea lortu zuen joan den astean

Uztailaren 21ean eginen zaie ongietorria Agerra Mendi Elkarte

**ASIER GOGORTZA**

Joan den ortziralean altxafero soinuekin argitu zeneguna Beran. Izan ere, goizeko 8,30ak aldera jakin genuen Gasherbrum II espedizioko kideek tontorra zapatu zutela. Pakistanera joan ziren 5 lagunetatik 3k lortu dute kaxkora ailegatzea; Xabier Zubieta, Luis Mari Pikabea eta Sabino Kortak. Bertze biek—Ana Larretxea eta Patxi Pikabea—beheko kanpamentuan gelditzea erabaki zuten. Ana laringitisak jota zegoen eta Patxi ere osasun arazoak zituen.

Igoera azkarra egin zuten hiru mendizaleek, lehendabiziko kanpamentutik hirugarrenera eta han lo egin eta gero kaxkoraino zuzen zuzenean. Azken ibilaldi hau izan zen gogorrena, 14 orduz ibili baitziren gelditu gabe.

Honenbertzez, 8.000 metroak gainditzen dituen Bortzirietako lehen espedizioa bihurtu da Agerra Mendi Taldekoena. Beren helburua lortu ondoren heldu den asteazkenean itzuliko dira mendizaleak etxera. Ez da segurua ze ordutan ailegatuko diren, baina segurua herrian ongi etorri hunkigarria eginen zaiela ailegatu be-



Argazkian 1987ko Alkaiagako bestak. Aurten ere sokatira eta bertze jokotan ariko dira igandean bazkaldoan.

## Alkaiagako bestak, uztailaren 24 eta 25ean

Heldu den asteburuan ospatuko dituzte Santiagoren omenezko bestak Alkaiaga auzoan. Larunbatean arratsaldeko 6etan botako dute zerura altxafero, eta gero frontoira jautsiko dira auzokoan arteko **pilota partiduak** ikustera. Gero, 7,30ak aldera, **haurrentzat jokoak** eta **txokolatada** izanen da auzoan. 8,30etan, urtero bezala, Gure Txokoako **dantzariak** beren saioa eginen dute, eta aforatuz Bortzirietako bertso eskolako **bertsolaria** ariko dira kantari. Ondoren **Irailerako 6** berbena taldeak alaituko du gaua. Erran behar da aurten bi ostatu edo txozna jarriko dituztela lehenago egiten zen bezala.

Igandean, berriz, Santiago egunean, mezarekin hasiko dute eguna, eta **haiketako** eginen dute ondoren. Eguerdiko 2etan **auzo-bazkaria** eginen dute alkaigarrek, eta bazkaldoan jokoak izanendira denentzat. Bestak ongi akitzeko, **Irats** auzoko trikitixa taldeak animatuko du ilunabarra.

zain laster. Agerra Mendi Taldearen Egoitzaren aitzineran izanen da harrerahori. Bertzetik, Berako bestetako altxaferoak euren botako dutela ere errana du alkateak.

## Nazioarteko dantza topaketa 25ean

Uztaileko azken asteburuan munduko bazterretan dantzatzen di-

ren dantza folkloriko desberdinek beteko dute herria. Aurten Nazioarteko Dantzari Tiki Egunaren bigarren edizioa antolatu du Gure Txokoak Udalaren laguntzarekin. Hau idazteko orduan ez genekien zehatz ze herritako dantzariak parte hartuko duten.

Goizez auzoetan bar-

na ibiliko dira dantzari, eta eguerdian Alzate karrikara bilduko dira elkarrekin saioa egiteko. Bazkaria Berako dantzarien etxeetan eginen dute, eta arratsaldean herria erakutsiko zaie kanpoko. Egunean dantza saiorik politena ilunabarrean izanen da, arratsede 8etan Eztegar pilotalekuan.

**flash**

**Bestetako argazkiak**

Herriko bestetan TTAPI-TTAParekin batera ateriko dugun gehigarriko etxean gordeak dituzten erretrato zaharrak uztea nahi genuke. Deitu telefonoz edo pasatu Herriko Etxearen beheko solairuan dugun bulegotik, argazkiaren datuak emateko. Eskertuko dizugu.

**Juan Carlos Garro**

Ekainaren 27an akautu zen Espainiako Mountain Bike Openean gailendu zen beratarra. Larunbata honetan bertan jokatu du Coronas sariaren azken etapa, eta gero Espainiako Txapelketa (24an), Europarra eta Mundialean parte hartu du.

**Futbito txapelketa**

Uztailaren 1 Sean hasiko da Baietz peñak antolatzen duen Berako peñen arteko futbito txapelketa. Partiduak arratsero jokatu dira Toki Ona kiroldegian, eta finala uztailaren 3 In jokatu da.

**Gazte Jokoak**

Aurten irailan eginen dira Gazte Jokoak gazte aunitzek hala eskatu baitzuen iaz. Seguraski irailaren 18tik urriaren 16ra jokatu dira proba gehienak, larunbat eta igandean.

**Iriarte-Echandi, s.l.**

- Aholkularitza
- Artekaritza
- Aseguruak

Kanttonberri 1 • BERA • Tel eta Faxa: 948 631169

**Javier Manterola**

TEKNIKO  
INSTALATZAILEA

iturgintza • gasa • kalefakzioa

Tfnoa: 948 630 031 • BERA

**Botxo**

OSTATUA

© 948630052 • Zalain • BERA

zapatak osagarriak konponketa

**kalotxa**

Kanttonberri 6 Bera  
© 948 631516

**Guttiago falta da 2000 urteko Sanferminetarako**

Eguraldi goibel eta euritsuak hartu zuen aurtengo Sanferminetako txupinazoa. Ondoko egunetan, ordea, eguraldi zoragarriak lagundu du besta giroa zabaltzen. Aurtengoan, udal korporazio berria izan zen San Fermin eguneko prozesioan, eta hauei lagunduz, Mikel Iriarte musika bandako zuzendari berriaren *debuta* ere izan zen. Gainerakoan, *Zubi gainekoa* eta dantzarien joan-etorriak izan ziren egun haundiko protagonistak. Biharamonean, peñek ederki gozatu zuten beraien egunean. Bakoi-tzak bere aldetik bazkaldu ondotik, denak elkarrekin egin zuten peñen jautsiera, Onin errekan akautu arte.

Haurrek eta ezkonduak ere izan zituzten beraien egunak, nahiz eta azken hauek, larunbat arratsekojende uholdea zela eta, leku soberarik ez izan beraien eguneko dantza saioak eta otorduak egiteko.

Aurtengoan, iaz bezalaxe, seigarren egun bat izan da besta egiteko, igandea. Honela, aste guzia *juergan* pasatu ondotik, astelehen goizean bazen oraindik Pobre demi abesten zegoen jenderik. Bertze batzuk, ordea, besta goa itzali ez eta Iruña alderakobidea hartu zuten. Zorionez, guttiago falta da 2000. urteko Sanferminetarako.



**Emakumezkoen paleta goma eta gizonezkoen larruzko pala txapelketeko txapeldun eta txapeldun ordeak.** Argazkia: Aitor

**Sanferminen aitzineko asteburua kirolez betea**

Pilota, sokatira, saskibaloia, txirrindularitza...

**AITOR AROZENA**

Sanferminen aitzineko larunbatean kirola ikusteko aukera ederra izan zen herrian. Arkupe elkarteak antolatutako emakumezkoen paleta goma txapelketaren eta gizonezkoen larruzko pala txapelketaren finalak jokatu ziren. Mirari eta Mainerrek 35 eta 31 irabazi zieten Eli eta Amaia eta gizonen artean, Garcia eta Ormaetxeak 40 eta 32 irabazi zieten Miera eta Etxeberriari.

Kadete mailako 13. Marino Lejarreta Txirrindularitza Saria ere burutu zen. Ibilbidea la-

burra izanagatik (45 kilometro terdi), beroak gogorra bihurtu zuen proba hau. Caja Rural taldeko David Moreno nagusitu zen.

Varez Poligonoko zelaietan, berriz, Euskal Herriko lur gaineko sokatira txapelketaren kanporaketa burutu zen, 640 eta 680 kilotan.

Azkenik, Beti Gazte antolatutako hiru hiruren kontrako saskibaloia txapelketa jokatu zen Irain pilotalekuan. Guzira 15 taldek hartu zuten parte. Senior mailako finalean, Iparraldeko Four Killers taldeak 20 eta 8 irabazi zion Ordiriako Shark Team taldeari. Junior



**David Moreno gailendu zen helmugan.**

mailan, Siempre perdemos con los de Dunboa irundarrak 20 eta 11 irabazi zioten Berako Zakil Onil taldeari. Ondotik, hiruko jaurtiketan txapelketa jokatu zuten eta Iparraldeko Damien Bakis izan zen irabazlea.

**flash**

**Rafa Maritxalar** korrikalari lesakarra irabazi zuen uztailearen 4an Iruñeko Entzierroaren lasterketa. Rafak 2 minutu eta 2 segundu behar izan zituen Santo Domingotik zezen plazara dauden 798,6 metroak egiteko. Honela, 50.000 pezeta sakeleratu ditu. Hiru aldiz ateri da Rafa proba honetan, lehendabizikoaan hiru-garrena izan zen, bigarrenean bigarrena eta aurtengoa garailea. Gainera, sekula baino kirolari gehiagok hartu zuen parte aurtengo lasterketan, 210 partaide izan baitziren. Rafak erran zuenez, inoiz ez du zezenen aitzinean lasterka egin, hori bai, Sanferminak aukeratzekotan, herrikoak nahiago ditu Iruñekoak baino.

**Erretiratuak Panticosara**

Harat-honat bidaiak egiten segitzen dutenak San Fermin Jubilatutako elkarteak dira. Uztailearen 23an, Panticosara joan dira. Goizeko 7etan abiatuko da autobusa eta Frantziako Hegoaldean barna ibili ondotik Panticosako Medio Dia hotelean bazkalduko dute. Egun osoaren prezioa 2.600 pezetakoa da eta txartelak uztailearen 18a baino lehen hartu behar dira egoitzan.

**KATTU**  
ostatu - jatetxea  
Plater konbinatuak eta menuak  
© 948627573 • LESACA

**IRU BIDE**  
ERRETEGINA  
Tfnoa: 948 637 127  
LESACA

**Txema Etxarte**  
Zolen akutxilatze eta  
bernizatze profesionala  
© 948 637439 • 31700 LESACA

**Deñe**  
LENTZERIA  
MERTZERIA  
Tfnoa: 948 627 514  
Beheko Plaza 8, LESACA

**ETXALAR**

# Udalbatza berriko kideek kargua hartu dute uztailaren 3an

Mendi lanetarako dirulaguntzak eskatu ditu Udalak

**PELLO APEZETXEA**

Hilaren 3an jabetu ziren beren karguaz Udalerako hautatu guztiak. Bilkura horretan Migel Mari Irigoien hautatu zuten alkate. Alkateordetza eta Lan Batzordeak banatzea da hurrengo lehen eginkizuna, alkatearen esku-tik. Hil honen erdialdean egingen du bere lehenbiziko bilkura Udalbatz berriak.

**Udalekuetan buru-belarri sartu dira haurrak**

Oporrak hasi bezain abudo, udako goizetako zeregin berezietan sartu ziren haurrak, Udalekuen programaren arabera. 44 hurrek hartzen dute parte, denetara, Garazi, Anabel, Iñziar eta Ainhoaren ardurapean. Uztaila osoan luzatuko dira pres-



Berrogeita lau hurrek parte hartzen dute aurten udalekuetan.

Argazkia: Pello

tatutako ekitaldiak, xeheki hilaren 30a arte.

**Mendiko lanetarako dirulaguntzak eskatu ditu Udalak**

Heldu den urtean

mendian zer lan egin pentsatu du Udalak eta beraietarako dirulaguntza Gobernuari eskatu ere bai. Honako hauek dira: Otanegin eta Zabaletan garbitzea, 44

hektarea. Altxatako bi hektareatan garbitze eta bakantzea. Hutsarteak bete eta zerrakura egin Irumugarrin eta Orizkin, hamar hektarea. Hutsarteak Tolareleponerebe-

teko dira, hektarea batean. Iriarteko Bordaldean eta Orizkin, bakantze eta kimatze lanak.

**Andutzetako aparkalekuko lanak hasiak dira**

Errotagaraiako Pedro Juan Lasaga ari da aparkalekua prestatzen, Intzea eta Etxeberriberea arteko baratzean. Berak bakarrik egin du eskeintza, nahiz eta Udalak herriko bertze harginei ere proiektua eta presupos-tua bidali. Proiektuan ageri den prezioan hartu ditu lanak Pedro Juanek: 696.614 pezeta.

**Igerilekuetan ikastaroak**

Bertze urtean bezala, igeritan egiteko ikastaroak plantatu dira aurten ere. Uztailaren 5ean, astelehena, hasi dira maila ezberdineko bi haur talde.

**ANA**  
Janaridenda  
Bittiria, 41 • ☎ 948637518  
LESAKA

Mannel Zamorano  
Bernizadurak  
Pintura orohar  
☎ 689 042 671 • 948 637556  
Bittiria, 37 • LESAKA

**XATURETXEA**  
JATETXEA  
Tfnoa: 948637027 LESAKA

**BEKO ERROIA**  
Lore eta landareak  
Frain auzoa • ☎ 948637826  
LESAKA

**kixkur**  
Ileapaindegia  
Tel: 948 637429  
Bittiriako Plaza, 3 behea  
LESAKA

**ALDO**  
ESTATEA  
LESAKA

**OBRA PROIEKTUAK**  
✓ Etxe berriak eraikitzeko  
✓ Zaharbarritzeko kanpotik eta barnetik  
✓ Urbanizazio proiektuak  
✓ Obra-zuzendaritza  
Udalendako aholkularitza-zerbitzua hirigintza lanetan  
**BIDASOA**  
arkitektura bulegoa  
Bittiria, 45 • ☎ 948 637 503 • LESAKA

**BORTZIRI**  
UNSION ANAIAK  
sukalderako haltzariak  
ERAKUSKETA  
Bereau etxea • LESAKA  
Tel eta Faxe: 948 637 266

**IGANTZI**

# Uztailaren 3ko bilkuran hartu zituzten karguak zinegotzi berriek

Asun Herbalejo irakasleak azken ikasturtea bete du Igantzin

**OSKAR TXOPERENA**

Herri gehienetan bezalaxe, uztailaren 3an hartu zituzten zinegotzi berriek euren karguak. Zinegotzi kargua hartu ondoko bozketan Eduardo Migelenaizendatu zuten Alkate, EAJ/EA taldeko lau botoekin, Ramon Retegik Herri-Taldeko hiru botoak eraman zituen bitartean.

**250 lagunek dute uda osorako bonoa igerilekuan**

Ez dugu aurten pisina bisitatzeko egiten duen eguraldiaz deus erran beharko, aintzineko urtetan ez bezala, tarteka bederen, politik egiten ditu eta. Hori narbaritu egiten da jendearen harat-honatei dagokionez. 250 lagun inguru izan dira uda guruzako bonoa erosi du-



Hurrengo lau urtetan Herriko Etxea gidatuko duen lan taldea. Ezkerretik eskuinera: Jose Mari Almandoz, Jose Luis Sein, Juan Antonio Etxebeste, Eduardo Migelena (Alkatea), Maria Jose Larraioz (Idazkaria), Ramon Retegi, Jose Ramon Etxeberria eta Josetxo Txoperena.

Argazkia: Oskar Txoperena

tenak eta bertze berrogei, berriz, uztailarako hartu dutenak. Ez da kopuru makala. Uztailaren 5ean hasi ziren igeriketa ikastaroak ere. Goiz osoan aritzen dira jota-ke taldeka 40 haurtik

goiti, azken urte haue- tango irakasle berarekin, Izaskunekin.

**San Juango mezak**

Ohiturari jarraituz, uztailleko igande guzietako mezak San Juan

Xarren izanen dira aurt- ten ere, eguerdiko ha- mabietan. Ondotik zer- bait hartu nahi izanez gero, hantxe arrautuko duzue urteroko kantina, orain gazteen eskuetan dagoena.

**Asun irakaslea**

Hamar urte Igantziko eskolan irakasten eman ondotik, Irungo ikaste- txe batetako lanpostua hartu du Asun Herbalejo irakasle irundarrak. Igantzin hainbertze ur- tez jarraian lanean ari- tu diren irakasleak ha- gitz gutti izan direnez, aunitz dira bere ondo- an aritu diren lankide- ak. Haurren egunak eskeintzen zuen aukera aprobetxatuz, zenbait oparietaoigarri eman zizkieten haur eta gu- rasoek, ongi merezita- koak. Zorte handia izan dezala bere lan berrian.



**ttipi-ttapa internet**  
<http://www.jald.com/aspagna/ttipi-ttapa>  
 E-mail: ttipi-ttapa@aspagna.jald.com

**TAIRULA**  
 • bitxikeriak •  
 • opariak •  
 • enmarkazioak •  
 Albistur, 39-K  
 ☎ 948627542 • LESAKA

**CONSTRUCCIONES MECANICAS BERRIZUN S.L.**  
 Makinaria eraikuntza  
 Moldaketak eta despiezea  
 Mantenimendu mekanikoa  
 Torno, fresadorak, errektifikadorak  
 Igantziko Bentak • ☎ 948627572 • Faxa: 948637313

**ASINE**  
 Rafael Pombar Sainz  
 BAZTAN-BIDASOAKO ENPRESEN  
 AHOLKULARITZA INTEGRALA  
 Eztegara, 8 - behea • BERA  
 ☎ 948 630201 - Faxa: 948 630255

Gizon eta emakumeen arropan konponketak eta moldaketak egiteko zerbitzu azkarra  
**MOLDAKETAK KONPONKETAK**  
**RETOUCHERIE** de Manuela  
 Colon Pasealekua 64, behea (Trenbideko zubiaren ondoan)  
 ☎ 943 660 292 • IRUN

**LANCHAS**  
 • Parketak - Tarimak  
 • Kutxillatzea eta bernizatzeak  
 • Estaldura Orokorrak  
 Bera  
 ☎ 948630735

**ARANTZA**

# Udalbatza berriko kideek karguak hartu zituzten uztailaren 5ean

Aterpeko uda barnetegira, berriz, hasiak dira lehen ikasleak ailegatzten

ELIXABET ETA GARBIÑE

Joan den astelehenan, uztailaren 5ean, osatu zen Herriko Etxe berria. Bertan, Euskal Herriarrok taldeko bortz zinegotziek eta EAJ-EA koalizioko biek lau urtez herritar guzaien alde lan egingen dutela hitz eman zuten.

EHko zinegotziak Euskal presoak Euskal Herrira ekartzea aldarrikatzen duen kamisetarekin joan ziren lehen batzar horretara. Ortzi-ral honetan, uztailak 15, egingen den bileran banatuko dira kargu ezberdinak eta batzorde guziak osatuko dira.

## Aterpeko uda barnetegira etorri dira lehenbiziko ikasleak

Uda ailegatzearekin batera, hasi dira euskara ikasleak Aterpeko



Euskal Herriarrok taldeko Joxe Ramon Amoros izanen da legegaldi honetan ere alkate. Gainerako zinegotziak ere beraien karguak hartu zituzten uztailaren 5eko batzarrean.

Argazkia: Elixabet

barnetegira hurbiltzen. Uztailaren 5ean, hogei-ta bortz ikasle eta hiru irakasle osatutako taldea etorri da hamabortz egun hemen pasatzera. Goizez eta arratsaldean izanen dituzte klaseak

herriko eskoletan. Herriarrek ere ikasleekin desberdinak antolatzen dituzte eta, honela, herriari bixitasun berexia ematen diote uda parteko egun sargori hauetan. Beraz, ongi etorriak!

## Haurrendako patinaia ikastaroa

Guraso Elkarteak patinaia ikastaroa eta kirol ekitaldi desberdinak antolatuko ditu herriar haurren artean. Uztaileko azken astetik herriko

bestak arte, uztailean arratsaldean eta abuztuan goizez ariko dira. Azken urtetan bezala, Xabier lantzi lesakarra ariko da monitorea lanean.

## Igantziako igerilekura autobusa egunero

Uztailaren 5etik 30eragoizeko 10,30etan aterako da egunero Igantziako igerilekura joan den autobusa, igeri egin edo ikasi nahi duten guzientzat. Guraso Elkarteak antolatuko du eta, urtero bezala, haur eta ez hain haur diren aunitz hurbilduko dira, bi orduz igerilekuan aritzeko.

## Istripu larria

Santiago Lazkano arantzarra trafikoko istripuan hil zen ekainaren 30ean. Berekin zozaien Joaquín anaia ere zauritua suertatu zen.

Irungo errep. - BERA - Tel. 948-631317

**HARRI NATURALA**

ATERATZEA eta LANTZEA

Antzinaldeak	Tximiniak
Angehuak	Erlaizak
Orma antzinak	Moldurak
Lehoak	Zokaloak
Ateak	Hilariak
Arkuak	Marrakikiak
Pilareak	

"Abajantziak" Muzoiak  
Zabur antzinak Txapinak

ZINTARRIAK  
ADOKINAK  
ZOLAK

**ALBERGEA JATETXEA**

☎ 948634179  
ARANTZA

**GRUPO ZURICH**

**ASEGURO OROKORRAK**  
Itzea, 4 — BERA — ☎ 948 630763

**SAROB**  
okindegia

**SANDERS Pentsoak**  
Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA

**DROGUERIA MOLINERO**

• DROGERIA • LURRINDEGIA • OPARIAK •

2.000 kolore baino gehiago lortzen ahal duen makina  
10 minututan zuk nahi duzun kolorea  
Profesionalentzat prezio berezia

Eztegara 19 • ☎ 948 63 02 40 • BERA

**SUNBILLA**

# Herriko Etxea osatu eta batzordeak banatu ziren

EAko Jose Mari Hernandorena izanen da alkate, espero bezala

JAIONE ETA ALBA

Uztailaren 3an, eguerdiko 12etan, Sunbillako Udaletxean kargua hartu zuten datozen lau urteotako legegaldia Udala osatuko duten zazpi lagunek. Honela banatu dituzte udal lan eta arlo ezberdinak:

Alkatetza: Jose Mari Hernandorena (EA).

Alkate-ordea: Jose Manuel Zugarramurdi (EA)

Herrigintza: Martin Irazoki (EA)

Mankomunitatea: Margari Capdequi (EA)

Hezkuntza eta Kultura: Rakel Urtxegi (EA)

Partzuergoa eta Osasuna: Pilar Korta (EH)

Mendien batzordea nork zuzenduko duen ez da erabaki oraindik.

Karguak banatu eta herriaren aldeko lana eginendutela hitz eman ondotik, ohitura den bezala, bazkari ederra izan zuten guztiek legegaldiari hasiera ona emateko.

### Igeriketa ikastaroak

Igerilekuko ardura-dunak izanen dira aurtengoan igeriketa ikastaroetako irakasleak. Izena emannahi izanez gero, igerilekuan bertan egin dezakeze eta han emanen dute informazio gehiago.



### Fondako mus txapelketa

Aurten hiru lehendabiziko bikoteak honako hauek izan dira: Mari Carmen eta Pakita; Juanma eta Jose Luis eta Maxux eta Rakel.



### Urrezko Ezteiak

Tresenbordako Luis eta Fanik Urrezko Ezteiak egin zituzten pasa den ekainaren 27an. Elizkizunen ondotik bazkari ederraegin zuten kanpian. Zorionak!

**ZALAIN** Zalain Auzoa  
© 948631106  
J A T E T X E A BERA  
EGUNEKO MENUA ETA KARTA  
**Boda eta banketeak ematen dira**

**J. RAMOS**  
Zolak akutxilatatu eta barnizatzen dittut  
© 948631342 BERA • © 948637172 LESAKA

**ttipi-ttapa internet**  
<http://www.jalgi.com/topaginoa/ttipi-ttapa>  
E-mail: [ttipi-ttapa@topaginoa.jalgi.com](mailto:ttipi-ttapa@topaginoa.jalgi.com)

**FUNERARIA ZERBITZUAK**  
**Lesaka-Donetztebe**  
**MALDAERREKA, S.L.**  
24 ordutako zerbitzua  
Iruñea-Donostia-Irungo ospitaletatik edozein herritara trasladoak  
Tfnoa: 948637404 • LESAKA  
Tfnoa: 948450475 • DONEZTEBE

**APARAN, S. A.**  
BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 948 450 133  
948 451 541  
Faxa: 948 450 334  
**DONEZTEBE**



# Udal igerilekuak zabaldu eta ikastaroak hasi dira

Felipe Ganboa eta Joxe Irigoien dira arduradunak

**PATXI IRIARTE**

Dagoeneko zabalik daude udal igerilekuan eta txartelak salgai daude Nafarroako Aurrezki Kutxan. Igerilekuaz goxatzeko lehendabizi sartu egin behar da, eta sartzeko txartela erosi edo urteko bonoa erakutsi behar da. Uda osorako bonoaren prezioak honako hauek dira: 4 eta 11 urte arteko haurrek 1.650 pezeta ordaindu behar dute; 12tik 17 urtera, 3.850 pezeta eta 18 urtetik goitikoek 5.500 pezeta. Hau da, joan den urteko prezio berak irai-

laren 15a bitarte igerilekua erabiltzeko baliagarriak diren txartelak erosteko. Goizeko 11,30etatik arratsaldeko 7,45etara zabalik egoten dira, baina ordutegi horretaz kanpo ere izaten da jendea, ikastaro ezberdinetan parte hartzen.

Felipe Ganboa eta Joxe Irigoien dira igerilekuetako eta ikastaroetako arduradunak. Igerilekuko zerbitzuaren barrenean, pilotalekua, ostatu tiki bat eta aurtun, ping-pongaren aritzeko mahai tiki bat sartuak daude. Eskolako

futbol zelaia ere bertan dagoela kontuan hartuz, kirolen bat egin eta gero bainua lasai-lasai hartzeko gonbidapen polita da.

Bertalde, ikastaroak ongi prestatuak daude eta urtetik urtera jende gehiagok ematen du izena. Astelehenean hasi da lehenbiziko ikastaroa, tikienei zuzendutakoa, eta hiru astez ariko dira. uztaile eta abuztuan, arratseko 8etatik 9etara, helduen txanda izanen da. Informazio gehiagorako edo izena emateko igerilekura joan behar da.



## Doneztebeko talde bat ariko da Baztan-Errekako XX. Laxoa txapelketaren finalean

Doneztebeko talde bat ariko da abuztuaren lehen Arraiozen, Baztan-Errekako XX. Laxoa txapelketaren finalean, herriko A eta B taldeak elkarren kontra jokatu behar baitute finalerdia. Joaneko partida igande honetan jokatu da eta itzulikoa, larunbatean, uztaileak 17, goizeko 10etan. Irabazleak, Irurita A eta Arraiozen arteko finalerdian gailentzen denaren kontra jokatuko du finalean. Doneztebe B taldeak buelta eman zion kanporaketari, Oitzen 9-5 galdu ondotik, Bear-Zanan 9-4 irabazi baitzuen. Doneztebe Akkontuak errexagoak izan zituen Irurita Bren aurka.



**Txupinazoaren ondotik dantzan eta saltoka hasi ziren doneztebarrak.**

TTIPI-TTAPA TB

## San Pedro bestak giro ederrean joan ziren

Jende gehiago aritu da dantzan leku berrian

Besta ederrak izan dira aurtengoak denentzat: eguraldi bikaina eta arazorik ez. Musika Plazoletan jartzea erabaki zuzena izan da, modu honetara, Bear-

Zanan baino jende gehiago izan baita dantzan. Gainerakoan, ekitaldi berriek ere arrakasta izan dute: Kick Boxingsaioa, parapentea, ginkana, basurde

harrapaketa, aizkora desafioa edo trikitixa txapelketaren kanporaketa, bertzeak bertze. Ehiza ibilaldian Lorentxo Oiarzabal nagusitu zen.

**GAZTANDEGIA**  
  
**LIZUN**  
 Etxeko Ardi Gazta  
 Petxenekoborda • Tfnoa: 948 450 862 • SUNBILLA

**BELARRA**  
  
 OSTATUA - JATETXEA  
 Ameztia karrika • DONEZTEBE  
 Tfnoa: 948 450 306

**PITTI** MINIESKABAZIOAK  
  
**Mobila. 616 513 491 - DONEZTEBE**

**AMEZTIA**  
  
 Jatetxea - Hostala  
 Espezialitatea euskal sukaldaritzan eta pintxoetan  
 Tfnoa: 948 450 028  
**DONEZTEBE**

**MALERREKA**



Ezkerrean, Trinitade Eguneke argazkian, ezkerretik eskuinera: Ana, Ana Teresa, Kizkitza, Txaro, Elena, Jose, Maite, Iban eta Josefa. Badira urte batzuk baina ez dira batere aldatu. Eskuinean, duela urte batzutako pilota partidua herriko plazan: Bautista Toki-Ederrekoa eta Juanjo Motzenekoa

# Iturengo bestak uztailaren 16tik 20ra

Larunbatean pilota eta herri kirola izanen da

**Ostirala, uztailak 16**  
9etan txupinazoa. Gero kalejira trikitilari eta txistulariekin. 12,30etatik 4ak arte, dantzaldia AMAIA eta KRISTINA trikitilariekin.

**Larunbata, uztailak 17**  
10etan kalejira trikitilari eta txistulariekin. 1etan pilota partidua: Leitza-Errandonea, Apezetxea-Esnaolaren kontra. 6etan aizkora apostua: Mindegia, Nazabalen aurka. Lana: 8 kanaerdiko. Migeltxo Saraleki harrijasotzaileak 3 jasoaldi emanen dizkio 200 kiloko harriari, 2 jaso-

aldi 250koari, 3 jasoaldi esku bakarrarekin 200koari eta 100 kiloko borobilarekin ariko da. **Arratsaldez eta gauzez** dantzaldia GAUBELA taldearekin.

**Igandea, uztailak 18**  
10etan kalejira trikitilari eta txistulariekin. 12etan Meza Nagusia. 6etan herriko trikitilarien emanaldia. **Arratsaldez eta gauzez** dantzaldia GAUBELA taldearekin.

**Astelehena, uztailak 19**  
**Haurren Eguna**  
10etan kalejira trikitilari eta txistulariekin. 11etan pla-

ter tiraketa helduentzako. 11etatik 2etara eta 5etatik 7etara haurrendako jo-

kuak: Hinchable Standar eta Kotxe Ibilaldia. 5etan mus txapelketa. Arratsalde ongi akitzeko, hurrek txokolate jatea izanen dute plazan. **Arratsaldezeta gauzez** dantzaldia GAUBELA taldearekin.

**Asteartea, uztailak 20**  
10etan kalejira trikitilari eta txistulariekin. 2,30etan, ur-

tero bezala, herri bazkaria giroa eta umorea BIZKARGAIN eta FANFARRE txarangak alaituz. Ondoren, ohitura galdu gabe, kalejira. 8etatik 10etara eta 12,30etatik 4etara dantzaldia MIKEL SALABERRI akordeolariarekin. «Gaixoa ni» abestuz akituko dira aurtengo bestak.

**Iturengo Udalak**  
**Besta zoriontsuak**  
**opa dizkizue**  
**Iturendar**  
**eta bisitari guztioi**

**ETXANDI**  
**TXOKO**  
**jatetxea**

Bazkari, afari eta gosariak

**ITUREN**  
☎ 948 450 491

**AITXUNEA**  
**ERRETEGIA**

**ITUREN**  
*Pazi zopak aurrez eskatuta*  
Telefonoa: 948 450 410

**AURTIZKO OSTATUA**

Taberna Logelak Jatetxea

**XABIER & LURDES**

☎ (948) 45 04 77

**Berezitasunak**  
Arrain eta mariskoak parrillan

**KULTURKARI**

**Inprenta lanak**

- Kartelak
- Boletoak
- Faktura taloiak
- Bisita txartelak
- Aldizkariak
- ...

☎ 948 63 11 88

**MALERREKA**

# Elgorriagako bestak uztailaren 23tik 26ra

Santiago Egunean emakumeen arteko aizkora desafioa izanen da

**Ortzirala, uztailak 23**

**10etan** herrikoendako zaldi paseoa, Elgorriagako Zaldiekin. **5etan** haurrendako jokuak. **8etan** suziria, beste hasiera emateko. Gero, Malerrekako zopak Hilarion jatetxean. **12,30etan** dantzaldia GAUBELA taldearekin.

**Larunbata, uztailak 24**

**10etan** goiz-argi soinuak herriko trikitilariekin. **11etan** Onddoen Ibilbidea mendi bizikletan. Sariak: 1.- 15.000 pta eta trofeoa. 2.- 10.000 pta eta trofeoa. 3.- 7.000 pta eta trofeoa. 4.- 4.000 pta eta 5.- 3.000 pta. **5etan** herriko XXXV. mus txapelketa eta gero, berendua. **12,30etan** dantzaldia GAUBELA taldearekin.

**Igandea, uztailak 25**  
**Santiago Eguna**

**10etan** goiz-argi soinuak herriko trikitilariekin. **11etan** Meza Nagusia, Mendi abesbatzak kantatua. **12,30etan** nesken arteko aizkora apostua: Maika Ariztegi, Kristina Saralegiren aurka. Bakoitzak launa enbor. Gero, hameketakoa. **6etan** futbito partidua. **7etan** pilota partidua, herrikoen artean, kategoria guzietan. **12,30etan** dantzaldia GAUBELA taldearekin.

**Astlehena, uztailak 26**

**10etan** goiz-argi soinuak herriko trikitilariekin. **11etan** herriko toka txapelketa. **2etan** zikiro-jatea. Bazkalondoa girotzen akordeolaria arituko da.



Zikiro-jatearekin akituko dituzte elgorriarrek aurtengo Santiagoak

**ttipi-ttapa internet**  
<http://www.jalgi.com/topagunea/ttapi-ttapa>  
 E-mail: ttapi-ttapa@topagunea.jalgi.com

**Arándano** zapato & osagarriok  
 merkatarien korrika 21  
 948 451 801 · doneztebe

**Burdinlan artistikoa**  
 MARTIN - IBARRA  
 Tfnoa: 948 450235 · ELGORRIAGA

**Hilarion Jatetxea**  
 Arrain, marisko eta bertako produktuetan espezializatuak  
 ☎ 948 45 00 03 · ELGORRIAGA

**ETXEBERRIA ZURGINDEGIA**  
 Ongi pasa bestetan!  
 ☎ 948 45 03 10 · ELGORRIAGA

**ttipi-ttapa telebista Malerrekan 62. kanalean**  
 Oraindik ongi ikusten ez baduzu deitu  
 ☎ 948 63 70 70  
 Javier Eneverreaga (Lesaka)

**GOIZUETA**

# Udal musika eskolan izena emateko epea zabaldu dute

Iban Loiarte eta Xabier Apezetxea Eskolarteko txapelketan irabazle

**ESTEBAN AROZENA**

Aralar Udal Musika Eskolakoek diotenez, kordiona, kitarra, pianoa, trikitixa, txistua edo zeharkako xirula jotzen ikasi lezakete hemen bertan edozein adineko herritarrek. Aurten, gainera, eskaintza zabalteko asmoa dute, eta horretarako ikaslerik balezago, saxofoia eta perkusioa (bateria, panderoa, kaxa...) erakutsiko lukete, baita kantatzen ere.

Herriko Etxean eman

behar da izena uztailearen barrenean. Dena den, aurretik informazio gehiago nahi izanez gero, 948 505211 edo 948 504489 telefonotan emanen omen da jakin beharreko guzia.

## Herriko pilotariak bikain herriarteko eta eskolarteko txapelketetan

Aurten ere hagitz lan duina egin dute Goizuetako pilotariak Herriarteko txapelketan. Bi kanporaketa gaindituta koan Iruñaren kontra fi-



Aspaldiko urteotan bezala, herriko pilotariak txapelak eta sariak ekarri dituzte orangoan ere.

Artxibokoa

nalerdietan erortzeak meritu handia du, eta gure herrikoak jokatzen duten baldintzetan jokatuta, askoz haundiagoa.

Berri on gehiago ere eman ditu pilotak azken asteotan, esate baterako, Iban Loiartek eta Xabier Apezetxeak Eskolarteko Nafarroako txapela lortu zutela uztailearen 3an Labriten.

Aurtengo hirugarrena omen da hau Iban eta Xabierrentzat. Loiartek badu estadistikak xuxen-xuxen eramaten dizkion jarraitzailea ere eta bere informazioaren arabera, zenbaki harrigarriak ditu 14 urteko mutiko honek, aurten jokatutako 32 partiduetatik 4 bakarrak galdu baititu.

Ekaitz Narbartek eta Iban Eskudero ere izan zuten finala jokatzeke ohorea, baina hauek ez zuten txapelik etxeratu. Eskolarteko lehia honek 25. edizioa bete du aurten. Goizuetako eskolakoek guztietan parte hartu dutelako oroi-garria eman zioten antolatzaileek beste hiru herriri bezala.

**ARANO**

# Santio jaiak, uztailearen 23tik 26ra

Herri kirol ikuskizuna egun haundian

**Ostirala, uztaileak 23**

12etan Udaletxeko balkoitik, txupinazoa. 10,30etan mus azkarra lehiaketa San Roke elkartearen.

**Larunbata, uztaileak 24**

10etan goiz-soinua trikitilariekin. 12etan pilota partidua infantilen artean. 5etan Añorgako dantza taldeak eskainitako saio berezia. 6etan Gorritiren show-a. 7etan kontzertua San Martin elizan, Ansa ahizpek eskainia. Ondoren txokolatada. 10etan ohiko oilasko jatea San Roke elkartearen. Segidan, festetako zozketa egingo da. Ondoren,

gaupasa MUXU-TRUK taldearekin.

**Igandea, uztaileak 25**  
**Santiago Eguna**

10etan goiz-soinua trikitilariekin. 11etan Meza Nagusia. 12,30etan Arano eta Goizuetako afizionatuen arteko pilota partidua. 6etan Saralegi anai-arreben eta Iparraldeko Jokuen ikuskizun berezia. Mikel Saralegik 200, 250 eta 280 kiloko herri errektangularrarekin eta 100 kiloko borobilarekin ariko da. Ondoren bi aizkolarien arteko lehia eta segidan, arratsaldeko de-



safioa: Kristina Saralegi eta aurreko bi aizkolarien arteko lehia. Saioa bukatzeko Joxe Jorajuria eta Andres Arbenaizek Iparraldeko Jokuen erakusketa. 8etan trikitixa herriko plazan XAPÓ taldearekin.

**Astelehena, uztaileak 26**  
**San Joakin eta Santa Eguna**

10etan Goiz-soinua trikitilariekin. 10,30etan Meza jubilatuei eskeintzen. Ondoren hamaiketako «Gure Ametsa» tabernan. 12etan pilota partidua afizionatuen artean. 2etan bazkaria Herriko Etxea tabernan, trikitixa eta Lazkano-Agirre-Legarreta bertsolariek alaiturik.

# Hemendik aurrera etxez-etxe bilduko dira traste haundiak


Hondakinak industrialdean pilatuko dira Iruñera eramán aurretik

JOSEBA AZPIROZ

Jakina da tamaina haundiko hondakin (altzariak, elektrogailuak, etab) bilketak arazok sortzen dituela, eta orain arteko zerbitzua -hilean behin- ez dela egokiena. Horregatik, Udalak, industrialdean duen pabilioiaren atarian hondakin hauek pilatzeko baimena eman du. Horrela, traste haundiak jasotzeko telefono zenbaki bat eskaini eta herritarren eskaeren aurrean etxez-etxe zerbitzu hau emanen da. Iruñeara bidai bat egiteko adina zabor biltzen denean eta, hilean behin edozein modutan, eremua hustuko dute.

## Obra publikoak

Leitzelarreako bidean brea botako da. Iru-



Hilaren 16an aukeratuko da Batzorde Informatiboaren lehendakaritza.

sotik hasi eta Ixkibar birtarteko bidean brea botatzea erabaki zuen aurreko Udalak. Subastan Pagocelay Goizabal enpresarena izan zen proposamenik merkeena -21,7 milioi-beraz, be-

raiek eginen dute lan hori.

Bestalde, futbol zelaiko aldagelak egiteko ez zen batere proposamenik aurkeztu. Horren aurrean, eta Pagocelay Goizabal lizitazio pre-

zioan egiteko prest agertu zela kontutan harturik, obra hauei 18,4 milioietan esleitzea erabaki zuen Udalbatzak. Irailaren 30a baino lehen bukatu beharko dituzte lanak.

## flash

### Dantza emanaldiak Kultur 99 egitarauan

Plazaolako Partzuergoak beste zenbait erakunderen laguntzaz antolatutako Kultur 99 egitarauaren barnean bi dantza emanaldi izanen dira Leitzan. Lehendabizikoa plazan, uztailaren 24an, arratsko 8,30etan, *Sustrai dantza* izenburupean. Bigarrena, *Gaueko dantza*, uztailaren 31n, gaueko 10,30etan, pilotalekuan.

### Jardunaldiak

Euroari buruzko jardunaldi batzuk presatatu dituzte inguruko Udalek. Berastegiko Muñagorri Ikastolan izanen dira uztailaren 19, 20 eta 21ean, arratsaldez. Guztiz praktikoak izanen dira eta dohainik. Etxekoandre, baserritar, enpresari txiki etab.eri zuzenduak dira.

# San Pedro Eguna ospatu zen herrian

Hiru lagun plaza inguruak moldatzen ari dira

JUANA M<sup>a</sup> SAIZAR

San Pedro jaiak beste urte batez ospatu ziren. Larunbatean, baserrietan eskean ibili ondoren, Lagun-Arteakoek bazkaria izan zuten. Arratsaldean, Kukubel antzslana plazan eta ondoren txokolatada eta dantzaldia. Gauean,

Pake-Toki elkartean aforia eta dantzaldia. Igan-dean, Meza izan zuten eta San Pedroren irudia prozesioan atera zuten, txistularien laguntzaz. Gazta eta ardoa banatu zen meza ondoren. Etxez etxe eskea egin zen herrian zehar eta arratsaldez, berriro dantzaldia izan zen.

## Plaza inguruak moldatzen 3 lagun

Langabezian zeuden hiru lagun hasi dira lanean plaza inguruak, terrazak eta trinketea garbitu eta berritzen. Lan hauen aurrekontua 1.300.000 pezetakoa da eta Nafarroako Gobernuak 743.000 pezetako dirulaguntza eman du.



Herrian zenbait lan egiteko hiru lagun hartu ditu Herriko Etxeak.

Artxibokoa

Hilabete terdiz ariko dira lanean.

❖ Babesturiko Giza Lanaren barnean, bes-

te langile bat ariko da sei hilabetez, bost orduz. Uztailaren 19an hasiko da.

# Baztandarren Biltzarra ospatuko da igande honetan

Larunbatean ere hainbat ekitaldi izanen dira Elizondon

TTIPI-TTAPA

Asteburu honetan burutuko da, bertze urte batez, Baztandarren Biltzarra. Egun haundia, beti bezala, igandekoa izanen da, baina larunbatetik aitzinera nabarrituko da besta giroa.

Larunbatean, arratsaldeko betan, zesta punta pilota partiduak izanen dira Elizondoko pilotalekuan. Arratseko 8etan hasi eta gau guzian Zizkuitz txarangaren doinuak hedatuko dira karrikaz karrika Elizondon. Gauerdiko 12,30etatik aitzina, dantzaldia izanen da herriko plazan Amaia eta Kristinarekin.

Igandea izanen da Baztandarren Biltzarreko egun haundia. Goizeko 10etan laxoapartidua jokatu da Elizondoko pilotalekuan. 12etan orga apainduen desfilea hasiko da Elizondoko karriketan. Hauda Baztandarren Biltzarra egunean jende gehien erakartzen duen ekitaldia, izan ere, ikusgarria suertatzen baita Baztan-



**Baztandarren Biltzarra lehen eta orai. Goitian, Lekarozko orga duela hamabortz bat urte. Ondoa, aurtengo kartela.**

go hainbat herrik eta erakundek moldatutako orgakikustea. Gan den urtean baino gehiago izatea da antolatzaileen asmoa.

Eguerdiko 2,30etan izanen da herri bazkaria Merkatuzelaian. Bazkarira gateko txartelak salgai daude uztailaren 12tik aitzinetaraino, Baztandarren Biltzarren egi-



tzan.

Bazkalondoko jaialdian, bertsolariak izanen dira. Ondotik, sarien banaketa eta bidaien zozketa egingen da. Gero, Erramun Martikorena eta bertze zen-

bait kantariren txanda izanen da. Dantza herrikoien ondotik, Amaia eta Kristinarekin erromeria izanen da. Baztandarren Biltzarra eguna akitzeko, Etzakit taldearekin dantzaldia izanen da Elizondoko plazan.

## flash

### Jabier Elizetxe Iruritako gaztea istripuan hila

Jabier Elizetxe Arrijuria, 17 urteko iruritarra, ekainaren 27ko goizaldean Arraiozko piszifaktoria ondoan gertatutako trafiko istripuan hil zen. Berekin batera autoan zeuden lau lagunek ez zuten zauririk izan. Jabierrek DBHko bigarren zikloa ikasten zuen Lekarozen eta aski ezagunaz iruritan.

### Margoketa ikastaroa

Azken urteetan bezala, aurten ere margoketa ikastaroa egingen da aire librean, Jose Mari Apezetxea eta Tomas Sobrino margolarien eskutik. Abuztuan egingen den ikastaro honen aurrekontua 170.000 pezetakoa da eta izena emateko 7.000 pezetara ordaindu behar da.

### Lekaroz eta Bailegin

egin beharreko zenbait lanetarako Azpiroz y Saralegi enpresak aurkeztutako aurrekontua (3.368.486 pezetakoa) onartu du Balleko Udalak.

**ORDOKI LIKOREAK**

Tel.: 948453410  
Fax: 948453378  
**ARIZKUN**

**ERRETEGIA**

Parrilan egindako haragi eta arrainak

**AMEZTI, S.A.L.**

**KALITATEA eta ESPERIENTZIA**

- Marmol eta granitoak
- Sukalde eta bainurako entzimerak
- Lanak orokorrean

Tel.: 948 59 23 25 - Faxes: 948 59 22 95 • ORONOZ-MUGAIRI

**BAZTAN**

# Ipuin eta komiki lehiaketako sariak banatu dira

Balleko Udaleko Euskara Zerbitzuak antolatu zuen

TTIPI-TTAPA

Balleko Udaleko Euskara Zerbitzuak antolatutako Ipuin eta Komiki Lehiaketako sariak banatu ziren ekainaren 29an. Adinaren arabera, hiru mailetan banatu ziren parte hartzaileak.

A mailan (12 eta 14 urte artekoak) Elizondoko Karmentxu Elizegiren «*Non daude letrak?*» ipuinak eta Elizondoko Mikel Mortalena eta Xabier Goñiren artean egindako «*Andoniren abenturak*» komikiak eraman zuten lehendabiziko saria (hogeina mila pezeta).

B mailan (15tik 17 urtera), ipuinik onena Elbeteko Maria Torresen «*Landarteko Anbroxio*» izan zen. Komiki sariduna, berriz, Xabier Aleman amaiurtarraren «*Istripua*» izan zen. Biek 30.000 pezeta sakeleratu zituzten.

C mailan (18 urtekoak eta hortik goitiko-

ak), Elizondoko Fernando Anbustegiren «*HIES, eskapo*» ipuina eta Elizondoko Pello San Millanen «*Elizondoko Cayo Coco Conection*» komikiarentzat izan ziren lehendabiziko sariak (50.000 pezeta).

Epaimahaia, Itziar Mena disenatzaile elizondarrak, Iñaki Sanchez Lekarozko Institutuko marrazketa irakasleak, Migel Angel Asiain euskal hizkuntza eta literatura irakasleak eta Xabier Iaben Lekarozko Institutuko euskal hizkuntza eta literatura irakasleak osatu zuten.

### Tomas Sobrinoren margo erakusketa Elizondon

Tomas Sobrino Elizondoko margolariaren lanak ikusgai izanen dira Jaime Urrutia karrakako 23. zenbakian, uztailaren 16tik abuztuaren 31ra. Goizeko 11,30etatik 1,30etara eta arratsaldeko 7etatik



### Ikastolaren Eguna

Ekainaren 20an Baztan Ikastolako kideak bildu ziren beren urteroko bes-ta ospatzeko. Goizeko 10etako Mezarekin eman zioten hasiera egunari eta ikastolako trikitilariak, dantzariak eta txistulariak beren saioa eskeini ondoren bazkari eder batekin eta dantzaldiarekin akitu zuten.

9etara zabalik egonenda erakustokia.

### Xotero Etxandi gartzeleratua

Xotero Etxandi arraioztarra uztailaren

2an atxilotu zuen guardia zibilak Lesakan. Xotero sei urteko gartzela zigorra jarri zion epaileak eta honen agindua segituz atxilotu zuten. Biharamonean, be-

re askatasuna eskatuz, manifestazioa egin zen Elizondon. Guardia zibilak karririk hartu zuten eta hogeitahogeita lagun baino gehiagoko taldeak ezin izan ziren bildu.

**IPINGI** ZATOZ ETA IKUSI  
Santiago 88, ☎ 948 580939  
ELIZONDO

---

**MERKEALDIAK**  
Udako arropetan eta teletan  
**Konplementoak**  
Belarritakoak, eraztunak, gerrikoak,  
oinetakoak, zapelak...

Baztanen... **24 orduko zerbitzua**

ESTHER

LOREDENDA • GARDEN CENTER

**ESTHER FUNERARIA**  
Hilketak • Hilautoak • Eskelak •  
Dokumentazioak  
Bezitzeak, etab...

Eta Iruñean...

**IRACHE TANATORIOA**  
Iratxe Monastegia, 60  
Tfnoa: 26 09 54

Aritzondo, Bergara auzoa • Tfnoa: 948580971 • **ARIZKUN**  
Errepide Nagusia • Tfnoa: 948592200 • **NARBARTE**  
Jaime Urrutia 39 • Tfnoa: 948580668 • **ELIZONDO**

*Eskisaroi jatetxea*

Jaime Urrutia, ☎ 948 580 013  
**ELIZONDO**

**SOULE**  
**Hileta artea**  
☎ 948 453 444  
☎ 908 779 903  
**ARIZKUN**

**SARA**

# Azken kontaktaren arabera, 1990ean baino 128 lagun gehiago bizi da herrian

Jean Pierre Etcheverry jauna Sarako erretor izendatua izan da berriki

ANA MARI, MARTINE ETA FRED

Jende errodaketaberriki egin izan da Lapurdin. Lehen ondorioen arabera, iduri du gero eta jende gehiago bizi dela Saran.

Espero zitekeen bezala, 1990eko zenbakia gaituta izan da, urte hartan 2.054 saratar kontaktzen baldin baziren, oraingoan 2.182. Hala ere, zenbaki ofizialak urte hondarrean baik ez dituzte emanen.

70. hamarkadako krisiaren ondotik (1968an 1.921 biztanle baziren Saran eta 1975ean 1.868), azken 25 urteetan biztanle kopurua beheiti goiti joaki da: 1982an 1.929, 1990ean 2.054 eta aurten, erran bezala, 2.182.

## Errobiko festibala

Uztailaren 21etik 24ra, Errobiko festiba-

laren 4. edizioa iraganen da. Usaian jaialdi hori bakarrik Itsasun ospatzen baldin bada ere, aurten lehen aldikotz Saran hasiko da.

Halanola, "Histori-aurrearen modernitate" gaiaren inguruan, "Lurralde kontuak" eta "Leizeko parte" sormen ikusgarriak agertuko dira uztailaren 21ean arratseko 9etatik goiti, Sarako lezeetan. Gero, festibalak Itsasuko bi-dea hartuko du.

## Jean Pierre Etcheverry erretor berria

Berriki jakin dugu Jean Pierre Etcheverry jauna Sarako erretor izendatua izan dela. Domintxinen sortua 1937an, 1965ean apez egin zenetik Hazparne, Luhuso eta Uztaritzetik pasatu ondoren, Mixel Idiarten lekua hartu du



Olhain ikastolako haurrak Hondarrbian iragan dute ikasurte bukaerako ateraldia. Parada honetaz baliatu dira Donostiako itssaserakustokia ikusteko, itsasontzian ibiltzeko eta Lasarteko "Txiki Park" en egun goxo bat pasatzeko. Eskuinean, Mikel Dalbreten "Irudi Sinbolista".



Saran, hunen lan baliosaren segida hartzeko. Jadanik uztaila lehen bi igandeetako mezak emanak ditu. Ongi etorri artzain berriari!

## Mikel Dalbreten erakusketa

Mikel Dalbreten estampa erakusketa Omordian izanen da uda osoan.

Zerda estampa? Irudi baten errepikapena edo erreprodukzioa. Beraz, artistaren hogeita hamar estampa izanen dira ikusgai.

**Pierresenea**  
OSTATU - JATETXEA  
Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa  
Iturriotz Auzoa • © 592043 • OROÑOZ-MUGAIRI

ARROPA DENDA  
**FANTAIKE**  
MERCERIA  
JAIME URRUTIA. 25  
TFNO. 580312  
ELIZONDO  
**ERNE!**  
Udako arropetan aukera zabala

**ttipi-ttapa internet**  
<http://www.lajl.com/images/ttipe-ttapa>  
E-mail: ttipe-ttapa@pierresenea.lajl.com

**HERRIKO ETXEO EDANTEGIA**  
MAIXAN ETA VÉRONIQUE  
64310 SARA • Tél. 05 59 54 25 19

**ARMUA**  
Jatetxea  
Zugarramurdiko karretera 3. Km  
© 948 599 131 - URDAZUBI

**WELDOM**  
TINTA  
BRIKOLAGE  
BARATZERAKO MAKINERI GUZIAK  
Tel. 05 59 51 66 90 - Faxe: 05 59 51 66 91  
Docteur Goyeneche karrika • 64500 **DONIBANE LOHITZUNE**



**ZUGARRAMURDI**

# Sorginek jantzi berriak jarri zituzten akelarrean

Arropa hauekin erakusketa bat eginen da seguraski, arbasoen jaunzkera ezagutarazteko



Jantzi berriak, eta lurtean jarrita "sorginen" artean, Enkarni jostuna.

MARGARI ETA KORO

Aurtengoakelarreko antzerkiaren berezitasun bat soinetakoa berriak izan ziren. Orain arte erabiltzen ziren franko ondatuak zirela eta berriak egitea erabaki zen. Horren ardurar Landaetxeko Enkarnik hartu zuen eta tar-teka Pantxika eta Gurutxeren laguntzarekin 25 soinetakoa josi zituzten (emakumezko 13 eta mutillezko 12).

Arropa hauek josteko hilabete terdiko lana behar izan zuen (eta egiazki sorgin lana izan zela, lan aunitz gauzez egin baitzen). Antzerki egunean ongi ikusteko aukera izan ez bazen ere, erran behar da ikustekoak direla, jantzi guztiak desberdinak direlako. Garai hartako grabazioetatik kopiatuak dire eta erabiltzen ziren soinetakoa mota desberdinak dire (ezkonduenak, aberatse-nak, nekazarienak...).

## 50 urte ezkondurik

Gan den ekainaren 25ean Arkupeak elkar-teak 50 urte ezkondu-rik dituztenei omenal-dia egin zien. Gure he-rritik Agustin eta Maria Josefa genitugun eta egun horretan merezita-ko oroitzapen bat izan zuten. Zorionak eta on-gi segi!



# PENTSIO PLANAK

## Nekazari, abeltzain

### Zure etorkizuna segurtatzea gure planetan santzen da

- Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzarekin**  
Nafarroako Rural Kutxan etorkizuneko planik hoberena dugu zuretzat: nekazari eta abeltzaintzat bereziki egindako Pentsio Plana, Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzarekin.
- Neurrira egina**  
Zure neurrira egindako Plana. Zure etorkizuna segurtatzea gutxiago kostako zaizu.
- Irailaren 1a arte**  
Zatoz Rural kutxara, informa zaitetz eta aukeratu zure Pentsio Plana.

[www.cajarural.com/navarra](http://www.cajarural.com/navarra)



## NAFARROAKO RURAL KUTXA

**TURISMA**

# 75 urte bete ditu Larrungo Tren ttipiak

Ekainaren 26an egin zen ospakizun ekitaldia

**TTIPI-TTAPA**

Ekainaren 26an, mendearen hiru laurden bete zituen Larrungo tren ttipiak. Egun horretan zenbait hautetsi -François Bayrou Pirinio Atlantikokoetako Kontseilu Nagusiko lehendakaria- ekitaldi ofizialean izan ziren. Dantzari eta musikariak ere trenean igan ziren Larrunera.

**MENDE HASIERAKO EGITASMOA**


Mende hasieratik ezagunak egin ziren Lapurdiko itsas bazterrik turistaren artean eta orduan hasi ziren Larrunera joateko trena edo funikularra egin nahian. Lehen Gerla Handiak egitasmoa gibeleratu zuen, baina azkenean,

1924an estreinatu zen Trena.

Geroztik, egunero-egunero, tirriki-tarraka, goiti eta beheiti ibili da trena. Orain telebistahaga dagoen lekuan, lehen hotel bat zegoen. Bigarren Gerla Handiaren ondokik baizik ez zuen erosi Frantziako Irrati Telebistak hotel hori. Beti ez da erakarria izan turistentzat: Okupazio garaian, alemanek radarrak ezarri zituzten. Halere, mende honen bigarren erdian, gorabehera guzien gainerik, gero eta turista gehiago erakarri ditu trenak. Azken hamar urteotan izugarri haunditu da bisitari kopurua, lau aldiz biderkatuz. Egun 4.500 lagunek hartzen dute egunero tre-

na, erran nahi baita urtean 350.000 lagun. Ipar Euskal Herriko lekurik bisitatuena da eta kaskoan ez dago lekurik jende gehiagoren errezibitzeko. Georges Perruquetti arduradunaren erranetan, «Larrun Larrun da, ez da turista parke bat bilakatu behar». Gehien bat Frantziako turistak dira, baina Ingalaterra eta Alemaniakoak ere etortzen dira. Hemen ingurukoak ere izaten dira, asteburuetan batez ere.

Etokizunari begira,



Larrungo trenak hirutan hogeita hamabortz urte egin ditu harat-honatean, San Inazioko lepotik atera eta Larrungo gaina arte.

trenbidearen inguruan oinezkoendako ibilaldi bat muntatu nahi luke-

te, tokiko fauna eta landareen ezagutarazteko, arduradunak dioenez.



**Jabier ELIZETXE**

16 urteko gaztea, istripuan hila

Nire ordua iristen denean hartu nire eskutik, gertu zeren lagunak gara eta lagunak izaten segituko dugu.

Zure lagun bat Irurita, 1999ko Ekainaren 27a



**Luis PIKABEA ORDOKI**

1999/06/25

Ez agurrik, ez adiorik gu guzian artean beti irauten duzu bizirik.

Mila esker zure lanagatik.

GURE TXOKOA ELKARTEA (BERA)



**Luis PIKABEA ORDOKI**

1999/06/25

Gehiago ikusiko ez zaitugun arren beti bihotzean eramanen zaitugu

ZURE FAMILIA  
Rosita, Ramon, Ana, Joxan eta Ania.

## EZKONTZAK

**Albertto Erasun Andiarena** eta **M<sup>a</sup> Lucia Muñoz Amorena**, Doneztebe eta Iruñakoa, ekainaren 12an.

**Juan M<sup>a</sup> Oskariz Cordoba** eta **M<sup>a</sup> Teresa Ursuegi Zubiri**, Iruña eta Elizondokoa, ekainaren 19an.

**Robert San Agustin** eta **Graxi Irigoien Garmendia**, Carcassonne eta Elizondokoa, ekainaren 26an.

**Tiburcio Tomas Dagerre Mitxelena** eta **M<sup>a</sup> Gema Martiarena Hualde**, Elbetea eta Elizondokoa, ekainaren 26an.

**Juan Andres Altxu Elizagarai** eta **Laura Vidan Astiz**, Oronoz eta Iruñakoa, uztailaren 3an.

**Antton Rodriguez Tomasena** eta **Susana Tato Zabaleta**, Goizuetakoak, uztailaren 3an.

**Jose Manuel Gomez Palomo** eta **M<sup>a</sup> Idoia Goñi Lasarte**, Lesaka eta Berakoa, ekainaren 26an.

**Antonio Agirre Sarratea** eta **M<sup>a</sup> Pilar Urroz Etxeberria**, Zizur Nagusia eta Narbartekoa, uztailaren 3an.

**Jesus Erguedas Velasco** eta **Ana Mari Hernandorena Agirre**, Valladolid eta Leitzakoa, ekainaren 26an.

**Alejandro San Migel Altzugarai** eta **Ana Isabel Grajirena Saldias**, Doneztebekoak, ekainaren 19an.

**Michel Parade** eta **Florence Delpeyroux**, Saran, uztailaren 3an.

## JAIOTZAK

**Xabier Agustino Jauregi**, Irurtzungoa, ekainaren 18an.

**Johannes Molinuevo Urrutia**, Elbeteakoa, ekainaren 24an.

**Andoni Taberna Larretxea**, Arantzakoa, ekainaren 29an.

**Maria Hacala**, Sarakoa, ekainaren 12an.

**Sara Guillén Fernandez**, Igantzikoa, maiatzaren 23an.

### ZORIONAK!

**Oparia ematen lehenak izan nahi dugu**



Haurtxoak sortu eta etorri Iruñeko Kutxara berehala. Aldatzeko saskitxo hau, haurraren garbitasunerako produktuekin bete, emanen dizugu.

**Ex ahantzi familiarren liburuxka!**

**IRUÑEKO KUTXA**

## HERIOTZAK

**Trevor Charles Skelton**, Oronozen, ekainaren 21ean, 49 urte.

**James Wild Simon**, Oronozen, ekainaren 21ean, 43 urte.

**Francisca Esnaola Oiartzun**, Elizondon, ekainaren 27an, 83 urte.

**Aurora Garcia Rodriguez**, Elizondon, ekainaren 28an, 86 urte.

**Javier Elizetxe Arriuria**, Iruritikoa, ekainaren 27an, 16 urte.

**M<sup>a</sup> Blasa Urrutia Galtzagorri**, Elizondokoa, uztailaren 1ean, 87 urte.

**Bittor Iribarren Narbarte**, Goizuetakoa, ekainaren 25ean, 83 urte.

**Fermin Luis Aranburu Graziarena**, Iturengoa, ekainaren 26an, 79 urte.

**Bernardina Apat Telletxea**, Berakoa, ekainaren 27an, 78 urte.

**Luis Pikabea Ordoki**, Berakoa, ekainaren 25ean, 70 urte.

**Santiago Sevillano Valencia**, Doneztebekoa, ekainaren 25ean, 51 urte.

**Manuel Olaizola Kaminoa**, Doneztebekoa, uztailaren 2an, 88 urte.

**Jose Mari Arburua Tomasena**, Etxalarkoa, ekainaren 27an, 53 urte.

**Santiago Lazkano Arrieta**, Arantzakoa, ekainaren 30ean, 66 urte.

**Pipin Perugarria**, Saratarra, ekainaren 25ean, 77 urte.

**Joakin Almandoz Sorondo**, Igantzikoa, uztailaren 1ean, 77 urte.

## Eskela gehiago 33. eta 34. orrialdeetan



**Jose Mari ARBURUA  
TOMASENA  
1999/06/27**

*Izarren hautsa egun batean  
bilakatu zen bizigai  
hauts hartatikan uste gabean  
noizbait ginaden gu ernai.*

ASIER eta AINHOAren lagunak



**Jose Mari  
ARBURUA  
TOMASENA  
1999/06/27**

*Beti gurekin  
egonen zara*

ALDAITEGIKO FAMILIA



**Jose Mari ARBURUA  
TOMASENA  
1999/06/27**

*Zure lana, borroka eta heriotza  
isiltasunean izan dira.  
Hala ere, Etxalartarrok,  
ez zaitugu, ez, atzenduko.*

ETXALARKO EZKER ABERTZALEA

# Arantzako Motosierra Mix taldeak irabazi du Bortzirietako futbito txapelketa

- Finalean 5-3 irabazi zion Lesakako Los Taurinos taldeari
- Hamazazpi talde aritu dira aurtengo edizioan

AITOR AROZENA

Arantzako Motosierra Mix taldea nagusitu da Beti Gazte elkar-teak antolatutako Bortzirietako futbito txapelketan, finalean Lesakako Los Taurinos taldeari 5-3 irabazi ondotik. Aurtengo txapelketarenezaugarri nagusia talde gehien arteko berdintasuna izan da eta finalean ere hori nabaritu zen. Atsedena dira banako berdinetarekin ailegatu ziren, eta bigarren zatieran hasieran lesakarrak 1-2 aitzindu baziren ere, aranztarrek buelta eman zioten markagailuari. Kontuan hartu behar da finalerdian nina hartu zuela Los Taurinos taldeko atezainak eta bere ordezkari ohi zuek ere, ez zuen finala jokatzetik izan. Hala ere, Motosierra Mix taldekoak ongi merezitako txapelidunak dira.

Zugarra mudi anaiek (Xabi, Bitor, Joseba eta Iban), Altzurianaiek (Juanjo, Mikel eta Xabier), Andoni Larrañaga, Imanol Iturria



Motosierra Mix txapelidun suertatu da. Lehendabiziko aldia da Bortzirietako txapelketa aranztarrek irabazten dutela. Argakiak: Aitor

eta Jaime Iturriak osatu dute taldea. Hirugarrenen eta laugarren posturako norgehiagokan, Berako Errekalde eta Faidel ostatuak izan ziren aurrez aurre. Seina berdindu zuten, baina Errekaldek eskuratu zuen hirugarren postua.

Guzira 17 talde aritu dira aurtengo edizioan, hameka Lesakakoak, Berako bi eta Etxalar, Igantzi, Arantza eta Behobiako bana.



Los Taurinos, hirugarren aldiz azpitxapelidun.



Errekaldekoak hirugarrenak izan ziren.



Faidel Ostaturia laugarren postuan gelditu zen.

## BOTE *brontze*

### ❖ Goleatzaile onena

Faidel ostaturiko Jokin Rico izan da txapelketahonetako goleatzaile onena hamazazpi golekin. Hirugarrenen eta laugarren posturako norgehiagokan hasi baino lehen hamahiru zituen, Glent Grant taldeko Inigo Rodriguezek baino bi guttiago. Azken partiduan horretan lau gol sartu zituen Jokin.

### ❖ Jokalari onena

Los Taurinos taldeko Modesto Maia «Pilotegi» izan da, antolatzaileen ustez, aurtengo txapelketako jokalaririk onena. Adintsuenetakoa ere bera zen, 40 urterekin.

### ❖ Minutuko ixilunea

Finala hasi baino lehen minutu bateko ixilunea gorde zen Julian Hernandezen oroimenez. Bere heriotzaren urte bete bada ere, atezaina gogoan dutela erakutsi zuten antolatzaile eta parte-hartzaileek.

### ❖ Hiru finalatik hiru galduak

Los Taurinos taldea hiru finaletan aritu da eta hiruak galdu egin ditu. Laugarrena ere izan da behin, beraz, ohorezko postuak bai, baina txapelidun ez dute inoiz lortu taurinoek.

# Lekarozko haurrak bikain Nafarroako areto-futbol txapelketan

Txapeldun eta azpitxapeldun izan dira infantil mailan

Nafarroako Kirola eta Gaztediaren Institutuak antolatutako Nafarroako Kirol Jokoe-tan emaitzabikainak lortu dituzte Lekarozko Bigarren Hezkuntzako Institutuko ikasleek. Areto-futbol txapelketan, B taldea (12 eta 13 urteko hurrekin) txapeldun suertatu da infantil mailan eta A taldea, berriz, azpitxapeldun kategorian berean. Talde honetako jokalar-riak urtebete zaharra-gok ziren.

Goiko argazkian, B taldeko txapeldunak ageri dira. Zutik, ezker-eskuin: Dani Arraztoa (entrenatzailea), Ivan San Jose, Iñaki Iriarte,

Guillermo Santos (entrenatzailea), Juan Antonio Agerrea eta Joaquin Fernandez. Ttotoriko: Xabi Bengoetxea, Xabier Aleman, Asier Zubigarai, Iñigo Etxandi, Gorka Urtasun, Jokin Urtizbera, Aritz Goñi eta Borja Arraztoa.

Behean, azpitxapeldun suertatu zen B taldea. Zutik: Jon Amiano, Aritz Plaza, Iñigo Plaza, Ion Oskariz, Javi Fleta, Endika Martin eta Dani Etxeberria (entrenatzailea). Ttotoriko: Aritz Jaurena, Urki Munarriz, Endika Euzgi, Xabier Goñi, Kotte Plaza eta Aitor Azkarate (entrenatzailea).



# Olaberri eta Pernaute txapeldun Doneztebeko paleta goma txapelketan

Finalean 35 eta 31 irabazi zieten Ibarra eta Berhori

Olaberri eta Pernautek eskuratu dute Erreka elkarteak bosgarren urtez antolatutako paleta-goma txapelketa, final handian Ibarra eta Berhori 35 eta 31 irabazi ondotik.

Partidu guzian aitzinetik ibili ziren txapeldunak, baina Ibarra eta Berhok pilota mo-

telagoa atera zutenean dexente hurbildu ziren. Halere, azkenean, Olaberri eta Pernauteren gaztetasuna izan zen Ibarra eta Berhoren esperientzia baino gehiago izan zen. Txapeldunak Doneztebeko Udalak emandako 40.000 pezeta, txapela eta sariak jaso zituzten, Mi-

gel San Migel alkatearen eskutik. Azpitxapeldunak, berriz, Nafarroako Aurrezki Kutxak emandako 20.000 pezeta eta Santesteban tailerraren eta gasolindegia-riaren sariak.

Hirugarren eta lau- garren posturako norge- giagokan, Etxegoien eta Zapiainek 35 eta 30



Pernaute eta Olaberri txapeldunak, Nafarroako Aurrezki Kutxako Pedro Bañares eta Migel San Migel Doneztebeko alkatearekin. TTIPI-TTAPA TB

irabazi zieten Larralde eta Mitxelenari. Sariak Erreka elkarteak eman zizkien bi bikote hauei.

Guzira hameka bikote aritu dira aurtan.

Herriko bi bikote- te dute 5 eta 6. postua: Luismi Apezetxea eta Patxiku Ganboak, eta Juanto Apezetxea eta Felipe Ganboak.

# AGENDA EGUNEZ EGUN

## BESTAK

### ITUREN

► **Uztailaren 16tik 20ra** 18. orrialdean

### ELGORRIAGA

► **Uztailaren 23tik 26ra** Xehetasunak 19. orrialdean.

### ARANO

► **Uztailaren 23tik 26ra** Santio jaiak. Egitaraua 20. orrialdean.

### ELIZONDO

► **Uztailaren 24tik 28ra** Santiago bestak. Xehetasunak erdiko gehigarri berezian.

### ELIZONDO

► **Uztailaren 18an** Baztandarren Biltzarra. Egitaraua 22. orrialdean.

## ERAKUSKETAK

### ELIZONDO

► **Uztailaren 16tik abuztuaren 31ra** Tomas Sobrino margolariaren lanak ikusgai Jaime Urrutia karrikako 23. zenbakian.

### ► Uztailaren 23tik

**26ra** "Etxea Nafarroan". Berako Kultur Etxean. Cultur 99.

## GUARDIAKO BOTIKAK

112 Tfnora. deitu behar da

### ► Uztailaren 12tik

**18ra** Bera, Sunbilla, Elizondo (lezaun), eta Goizueta.

### ► Uztailaren 19tik

**25era** Arantza, Ituren Elizondo (Iturralde), eta Goizueta.

### ► Uztailaren 26tik abuztuaren 1era


Etxalar, NARBARTE, Elizondo (lezaun) eta Goizueta.

# AGENDA PRAKTIKOA

## TELEBISTAKO TXOKOA

## ttipi-ttapa telebista

t	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	ORTZEGUNA	ORTZIRALA
11:00	Herriz-herri (erep)	Berriak (erep) Jokoa Solas	Berriak (erep)	Berriak (erep) Bidegurutzean	Berriak (erep)
13:00	Herriz-herri (erep)	Berriak (erep) Jokoa Solas	Berriak (erep)	Berriak (erep) Bidegurutzean	Berriak (erep)
17:00	Herriz-herri (erep)	Berriak (erep) Jokoa Solas	Berriak (erep)	Berriak (erep) Bidegurutzean	Berriak (erep)
21:00	Berriak	Berriak	Berriak	Berriak	Herriz-herri
21:30	Jokoa Solas		Bidegurutzean		Herriz-herri



## San Pedro, San Fermin, San...

Doneztebe eta Lesakako bestak eskaini ondotik TTPI-TTAPA TELEBISTAK bestaz besta segituko du heldu diren egun bero hauetan. Oraindik udako bestak hasi bertzerik ez dira egin, eta hilabetea akautu baino lehen bertze hainbat herri eta auzoetako bestak ezagutu ahal izanen dituzue etxetik mugitu gabe: Baztandarren Biltzarra, Iturengo bestak, Alkaia-gakoak... gainera, bestetako programekin bideo zintak jarriko ditugu salgai betiko tokietan. Beraz, etxeko sofán besta egiteko aukera ematen dizu uda honetan TTPI-TTAPA TBK.

## BASERRIA



### ❖ ZERRIKIA ❖

- **Zerrikumea** (20 kilokoa): 3.800 pta.
- **Zerri gizona** (95-100): 178 pta./kiloa.
- **Zerramak**: 90/95 pta./kiloa, bizirik.



### ❖ BEHIKIA ❖

- **Aretze gizenak**:
- **Idixkoak**: Pta./kg. Kanal  
Extra ..... .530  
1.koa ..... .500  
2.koa ..... .470
- **Urruxak**: Pta./kg. Kanal  
Extra ..... .540  
1.koa ..... .520  
2.koa ..... .480
- Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urruxentzako.
- **Aretze ttiak**  
(15 egun ingurukoak):  
**Nabarrak**: urruxak 12.000 eta idixkoak 28.000 Pta.  
**Mestizoak**: urruxak 28.000 eta idixkoak 40.000 Pta.
- Behi zaharrak**:  
Behi nabar gizona: 350 Pta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 380 Pta./Kg. Kanal.

DATU ITURRIA: EHNE-NAFARROA

## Liburuak



«Harri barruko bihotz-borrokak»  
Juan Luis ZABALA  
Elkarlanean

Beharbada batzuek gogoan izanen duzue Juan Luis Zabalak «Gara» egunkariko kontraportadán atalka argitaratu zuen ipuina: txirindulari gazte baten zantzaz mintzatzen zen, bere lagun bat atxilotu eta gartzelara sartzen dutenean bere afizioa eta sentimenduen inguruan sortzen zaizkion duda-mudaz. Istorio hori osorik irakurtzen ahal da liburu honetan, eta baita jende gaztea protagonistatzat du-

ten bertze bi ipuin ere. Gehienbat gazteetan pentsatuz idatzi ditu gipuzkoar honek ipuin hauek, bere hitzetan gutxi idazten baita gazteei buruz, eta gutxiago hemengo gaiak eta gaur egungoak tratatuz. Gainera, idazteko moduagatik azkár eta errez irakurtzen den liburu da hau, eta gaien aldetik ere aski mamitsua: sexua, laguntasuna, kale borroka... denak elkarrekin nahasten dira.

## JAKIN BEHARREKOAK

### Laguntza eskatzeko telefonoak

Gauregun, lagunen edo senideen arteko hizketaldiak izateko erabiltzen segitzen baldin bada ere, telefonoa bertze hainbat gauzatarako erabiltzen da. Elkarte aunitzek telefono zenbakiak eskaintzen dituzte (batzutan debaldetakoak) informazio desberdinak emateko. Arazo fisiko edo psikikoak dituzten pertsonen laguntza eskaintzen diete horietako batzuk, eta erran behar da jende aunitz eta aunitzek deitzen duela.

Bertzalde, ondoren emanen ditugun telefono zenbaki-eta bat gogoan hartzea gomenei da, 112a hain zuzen ere, edozein larrialditan (istripu, sute, ezbeharrak...) markatu behar dena baita. Europar Batasun guzian telefono hori berare da larrialdi kasuetarako.

Hauek dira laguntza zenbaki-eta batzuk:

#### ALKOHOLIKO ANONIMOAK 91 341 82 82

**Oharrak:** Elkarteko ki-deek atenditzen dute, goizeko 10etatik arratseko 10etara.

**Norentzat:** Alkoholiko, alkoholiko-ohi, senide eta hurbileko pertsonentzat.



Elkarte aunitzek doaneko laguntza telefono zenbakiak dituzte.

#### DROGOMENPEKOTASUNAREN KONTRAKO LAGUNTZA 900 161 515

**Oharrak:** Psikologo, psikiatra, pedagogo eta gizarte laguntzaileek hartzen dute. Eguneroko goizeko 9etatik arratseko 9etara.

**Norentzat:** Kaltetuentzat eta euren senideentzat.

#### EMAKUMEAREN LAGUNTZA 900 191 010

**Oharrak:** Abokatu eta gizarte laguntzaileek atenditzen dute egun osoan.

**Norentzat:** Tratu txarrak jasotzen dituzten, bereizketa arazoak edo arazo ekonomikoak dituzte emakumeen deiak jasotzen dituzte batez ere.

#### ESPERANTZAREN TELEFONOA 91 459 00 50 - 91 459 00 62

**Oharrak:** Soziologo eta abokatuek atenditzen dute eguneko 24 orduan.

**Norentzat:** Bakardadea, inkomunikazioa, familiareko arazoak edo gisako krisiak sofritzen dituzten pertsonentzat.

#### HAUR ETA NERABEK 900 202 010

**Oharrak:** Deitzen duena heldua bada 91 726 01 01 da telefonoa. Psikologo, pedagogo eta sikiatruk. Eguneko 24 orduan.

**Norentzat:** 18 urtez behetikoei laguntza juridikoa edo psikologikoa ematen dieten arazoak izan ezker.

## DISKAK



«Museum bilduma»

MER

Kostata baino azkenean hemen dugu. Duela bi urte Berako aduanan grabatu zen diska hau, eta produzitzeko arazo tiki batzuk izan bazituzten ere, azkenean lortu dute euren helburua, konpaktua ateratzea, alegia. Horretarako MER izeneko musika seiloa sortu dute. Musika aldetik arras proposamen interesgarriak —eta difereenteak— nahasi dituzte bilduma honetan: Berako taldeak;

Gutariko Bat, Zup, Borrokan, New Game (Mikel Irazoki) eta kanpokoak; Gutural (Trintxerpe-Oretera), Akauzaste (Azkoitia), Dut (Hondarribia), Koipe (Xabier Montoia), Munsterland (Bermeo) eta Señor No (Buenavista, Donostia). Talde bakoitzak abesti bat edo pare bat grabatu du. Momentuz ahalik eta ostatu gehienetan jarriko dute salgai, prezio merkean gainera.

# AGENDA EGUNEZ EGUN

## KANTALDIAK

### SARA

#### ► Uztailaren 22an

Saiberri taldearen emanaldia elizan. Arratseko 9etan.

## DANTZAK

### LEITZA

#### ► Uztailaren 24an

Sustrai-dantza, arratsaldeko 8,30etan Plazan.

#### ► Uztailaren 31an

Gaueko-dantza, arratseko 10,30etan, pilotalekuan.

### SARA

#### ► Uztailaren 17an

Dantza besta errebotean. Egunduz, dantzak, pilota partidak eta musikaz alaitu bazkaria.

### BERA

#### ► Uztailaren 25ean

Nazioarteko Dantzari Tiiki Eguna. Hemengo eta kanpoko hainbat dantza taldek erakustaldia egingen dute Berako karraketan barna. Arratsean beriz, 8ak aldera, Eztegar pilotalekuan jaialdia eskainiko dute talde guzietan elkarrekin. Antolatzaile: Gure Txokoa elkarte.

## FERIAK

### SARA

► Uztailaren 18an Eskulan eta sukaldaritzaren feria, egunduz, errebotean.

### SARA

► Uztailaren 24an Potokaren eguna. Egunduz errebotean.



# URTEBETETZEAK

Argazkiak berreskuratzeke, bidali sobra zure helbidearekin.

**OHARRA:**  
Argazki bakoitzarekin batera 35 Ptako 15 seilu igorri behar duzue. Gainerakoan ez dira argitaratuko. Argazkia itzultzea nahi baduzue sobra bat eta helbidea bidali.



**Aranbxa eta Nereak** urteak bete dituzte uztailearen 7an eta 8an. Zorionak eta muxu haundi bana Gabi eta Aneren partetik.



**Goretti Galañena** leizurrak uztailearen 6an 9 urte bete ditu. Zorionak etxeko guzien partetik.



**Berroetako neska** polit honek 6 urte bete ditu uztailearen 13an. Zorionak eta ongi pasa Maialen! Muxu potolo bat Xabierren partetik.



**Elkoko (Nevada) Mitchell Owsley Igoak** uztailearen 23an urtea eginen du. Zorionak Lesakako familiaren partetik.



**Xabat Zapiain Lasa** beratarrek 5 urte bete ditu uztailearen 12an. Zorionak atta, ama, Markel eta lehengusuen partetik.



**Kristina eta Ainhoa Etxebeste Azkarate** lesakarrekin uztailearen 3an eta 18an 7 eta 3 urte bete dituzte. Zorionak aita eta amaren partetik.



**Oier Iturria Razkin** exkalarrek 4 urte beteko ditu uztailearen 23an. Zorionak atta eta amaren partetik eta muxu bat.



**Oier Iturria Razkin** exkalarrek 4 urte beteko ditu uztailearen 23an. Zorionak Exkalarako osaba-izeba, amaxi eta ataxiaren partetik.



**Sevita Susperregik** urteak bete ditu uztailearen 10ean. Zorionak!



**Maddi Lasa Garcia** uztailearen 15ean 5 urte beteko ditu. Zorionak familiaren eta Aneren partetik.



**Ane Berasain Goia** beratarrek uztailearen 25ean 2 urte beteko ditu. Zorionak familia guziaren partetik.



**Eñaut Iparragirre Zinkunegi** exkalarrek 6 urte beteko ditu uztailearen 27an. Aita, ama eta amonaren partetik zorionak eta muxuak.



**Aritz eta Rakel Arburu Zubiria** hondarribitarrek 7 eta 5 urte bete dituzte ekainaren 24 eta uztailearen 11n. Zorionak Lesakako amaxi, ataxi eta familiaren partetik.



**Patxi Castillo** beratarrek 7 urte beteko ditu uztailearen 28an. Zorionak ama eta ataren partetik.



**Xabier Azkune Zabalo** beratarrek uztailearen 19an 10 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partetik.



**Nerea Iparragirrek** uztailearen 12an 2 urte bete ditu. Zorionak eta muxu bat aita, ama eta Oihaneren partetik.



**Jone Mítxeo Telletxea** gazteluarrak uztailearen 14an 14 urte bete ditu. Zorionak aita, ama eta Peioren partetik.



**Jone Camino Elizagoien** elizondarrak 4 urte beteko ditu uztailearen 22an. Zorionak bere familiaren partetik eta muxu haundi bat.



**Oskar Urkiola** beratarrek 25 urte bete ditu uztailearen 12an. Zorionak Lesakako familiaren partetik.



**Oskar Urkiola** beratarrek 25 urte bete ditu uztailearen 12an. Zorionak Maider eta Unairen partetik. Muxu haundi bat.



**Juan Luis Sarratea eta Maria Jesus Ibarra** uztailearen 20an 20 urte egin dituzte ezkonduak. Zorionak zuen familia guziaren partetik.



**Oihane Antuña Zelaia** sunbildarrak uztailearen 16an 4 urte beteko ditu. Zorionak aita, ama eta Ainararen partetik.

*Norbait zoriondu nahi baduzu bidali bere argazkia, testua eta 35 pezetako 15 seilo TTIPI-TTAPAKO helbidera.*



## Maria MIHURA EZKURRA

*Amatxi maitea:*

*Denbora gutti izan dut zure ondoan egoteko bainan hala ere nahikoa zu inoiz ez ahazteko*

ZURE BESOETAKO,  
M<sup>e</sup> PILAR ARBURUA



## Xanti LAZKANO ARRIETA

*Txoriekin bat jeikitzen zinen txoriak baino alaiago, haserre edo triste ikustea hori bai zela arraro. Haundiyak maite zenitun eta ume ttikiak gehiago gure artetik joanagatik guzia ez da akabo, zure izana zure irudia gure orimenean dago.*

ZURE ILOBEK  
ARANTZA, 1999KO UZTAILA



## Migel BALEZTENA GURBINDO

1. urteurrena (VII-20)  
**ITUREN**

*Gogorra da onartzea gehiago ez zaitugula ikusiko baina bizi garen artean ez zaitugu ahaztuko.*

ZURE EMAZTEA, SEME-ALABAK ETA BILOBAK





Ordoki Industriaidea • ARIZKUN  
Tfnoa. eta faxa: (948) 45 32 59

### 4 arrazai on PVC jartzeko



Kalefakzioan  
% 35a  
ahorra zen  
duzu



### ISOLAMENDUA



Ez du  
pintura  
beharrik



### MANTENU ERREXA



Ur eta  
haizeaz  
babe teko,  
baita ere  
solnueetatik



### HERMETIKOTASUNA



Denborak  
ez du alda-  
razten



### IRAUNKORTASUNA

*Etxe berrietan eta  
zaharretan. Edozein  
itxiera, balkoi,  
leiho, atari...*

*Eskatu aurrekontua  
konpromezurik gabe*




*Betikon kolore ugari  
ditugu, baita egur  
koloreak ere  
(haritza, kaoba,  
pinua etab.).  
Eta edozein  
etxe estilora  
egokitzen direnak.*

**Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe 948 453 259 telefonoan edo bisita gaitzazu**

**FAGOR**

*Fagor  
elektrogailuak,  
5 urteko  
garantia*



# AMAIVR

Doneztebeko sarreran © 948 450 400

*Prezioa zuk jarri, sukaldetxo gure jarriko dizugu!*

A photograph of three people, two men and one woman, smiling and looking towards the camera. They are wearing white short-sleeved shirts and red scarves. The background is blurred, suggesting an outdoor setting. The text 'Besta Zoriontsuak!!' is overlaid on the lower part of the image.

**Besta  
Zoriontsuak!!**

**GANI** NAFARROAKO AURREZKI KUTXA